LEGAZPIKO UDALA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

KONTRATU MOTA: ZERBITZUAK (PRIBATUA)
PROZEDURA: IREKIA (156. art SPKL)
OHIKO IZAPIDETZEA
ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA: BAI, ERREKURTSO BEREZIA JARRI BEHAR ZAION KONTRATUA: BAI

Xedea: LEGAZPIKO UDALARENTZAKO ASEGURU PRIBATUAK

Edukia:

Kontratuaren klausula.

Baldintza orokorrak.

Eranskinak.

KONTRATUAREN BERARIAZKO KLAUSULAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1 Definizioa:

Kontratuaren xedea Legazpiko Udalaren aseguru pribatuak kontratatzea da, Administrazio Klausula Partikularren Plegua honetan (AKP) eta Preskripzio Teknikoen Plegua (PTP) xedatutakoaren arabera. Aseguru horiek honako adar hauei dagozkie: udal-ondarea osatzen duten ondasun higigarri eta higiezinen kalteen aseguruak, erantzukizun zibila eta ondare-erantzukizuna, eta udaleko langileen nahiz Udalbatzako kideen bizi- eta istripu-aseguruak.

Udalarekin bitartekaritza-zerbitzua «Willis Iberia, Correduría de Seguros y Reaseguros, S.A.» enpresaren bidez egingo da. Enpresa hori Legazpiko Udalaren aseguru-bitartekaritzako zerbitzuaren egungo esleipenduna da.

1.2 LOTETAKO banaketa: bai

- **1. LOTEA:** Legazpiko Udalak bere ondasunen, jardueraren edo beste edozein inguruabarren ondorioz izan dezakeen erantzukizun zibila eta ondare-erantzukizuna.
- **2. LOTEA:** Udalaren ondarea osatzen duten ondasun higiezin eta higigarriei eragindako kalteen asegurua (edukitzaile eta edukia).
- **3. LOTEA:** Legazpiko Udaleko langileen eta Udalbatzako kideen bizi- eta istripu-asegurua.

Eskaintzak nahitaez lote oso bakoitzerako aurkeztu beharko dira, eta lote bakarrerako, hainbat lotetarako edo lote guztietarako aurkeztu ahal izango dira.

1.3 CPV kodeak:

1. lotea: 66510000-8 "Aseguru-zerbitzuak", 66516000-0 "Erantzukizun zibileko aseguru-zerbitzua"

2. lotea: 66515000-3 "Kalteen aseguru-zerbitzua",

3. lotea: 66511000-5 "Bizi-aseguruen zerbitzuak", 66512100-3 "Istripu-aseguruen zerbitzuak".

1.4 Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: Ez

1.5 Ondoz ondoko traktua: Bai

2. KONTRATU-IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 2. klausulan adierazitakoak.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Kontratu osoaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua urteko 220.000 eurokoa da, BEZetik salbuetsita. Kontratuaren bi urteko iraupena kontuan hartuta, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 440.000 eurokoa da guztira, BEZetik salbuetsita, eta honela banatzen da loteka:

- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO ZENBATEKOA:

DESKRIBAPENA	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO zenbatekoa (*)	BEZ
1. LOTEA: erantzukizun zibila eta ondare-kalteak	60.000,00 €* 2 urte = 120.000 €	SALBUETSITA
2. LOTEA: Udal-ondarea osatzen duten ondasun higiezin eta higigarriei eragindako kalteak (edukitzaile eta edukia)	75.000,00 €* 2 urte = 150.000 €	SALBUETSITA
3. LOTEA: Udaleko langileen eta Udalbatzako kideen bizi- eta istripu-asegurua	85.000,00 €* 2 urte = 170.000 €	SALBUETSITA

Prestazio hau BEZari buruzko azaroaren 9ko 7/1997 Foru Arauaren arabera salbuetsita dago.

(*) Eskainitako prezioa prima osoa dela ulertuko da, hau da, zergak eta jasanaraz daitezkeen gastuak barne hartuta. Era berean, prezio horren barruan sartuko dagoela ulertuko da Legazpiko Udalak kontratatutako aseguru-bitartekaritzako zerbitzuaren esleipendun den aseguru-artekariaren ordainsaria ere.

Lizitazio-prezioa lizitatzaileek aurkeztuko dituzten **beheranzko eskaintzen** oinarri izango den zenbatekoa da:

- Lizitatzaileek prezioa AKPren **IV.1 eranskineko** ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ereduaren arabera eskaini beharko dituzte.

- Adierazitako lizitazio-prezioa, lizitatzaileek aurkeztutako proposamenetan eta kontratua esleitzeko zehazten den zenbateko zehatz, konkretu eta jakinean, ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten edozein motatako tributuetako dagozkion kuotak ere sartuta daudela ulertuko da.

- Proposatutako lizitazio-prezioa gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira, bai eta plegu honetako baldintza orokorren 14. artikuluan aurreikusitako kasuren batean daudenak ere.

- Ezohiko baxutzat jotzen diren eskaintzak klausula espezifikoen 22.3 apartatuan ezarritakoaren arabera arautuko dira, eta, halaber, baztertu ahal izango dira, baldin eta eskaintzaren murrizketa justifikatzen duten arrazoi objektiborik ez badago eta aurkeztutako eskaintzaren bideragarritasuna bermatzen ez bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 149.4 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

3.1 Aurrekontu-aplikazioa eta urteko ekitaldiak:

Kontratua udal-aurrekontuaren kontura ordainduko da, eta aurrekontu horretan behar adina kreditu dago.

3.2 Aurretiazko izapidetza: Ez

3.3 Gastua kofinantzatuta dago: Ez

4. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

4.1 Kontratuaren balio estimatua: 504.000 euro

	1 Lotea	2 Lotea	3 Lotea
Lizitazio-aurrekontua Iraupena: 2 urte	120.000	150.000	170.000
Aldaketa		30.000	34.000
Kontratuaren balio estimatua, guztira	120.000	180.000	204.000

4.2 Kalkulu-metodoa

Kontratuaren balio estimatua kalkulatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 101.11.a) artikuluarekin bat etorri, oinarritzat hartu dira ordaindu beharreko primak, merkatu-prezioekin bat datozen prezioekin.

Era berean, kontuan hartu da kontratua aldatu ahal izango dela Administrazio Plegu honetako 16. klausula espezifikoan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, kontratuaren lote bakoitzaren lizitazio-aurrekontuaren %20ko gehieneko zenbatekoarekin.

5. PREZIOA ETA ORDAINKETAK

5.1 Prezioa zehazteko sistema: zenbateko osoa

Kontratuaren prezioa lizitatzaileak eskainitako primaren zenbatekoaren arabera zehaztuko da, eta zenbateko hori ezingo da lote bakoitzaren lizitazio-aurrekontua baino handiagoa izan.

5.2 Prezioa ordaintzeko modua:

Legazpiko Udala prima ordaintzera behartuta egongo da.

Ordainketa dagokion faktura jaulki eta aurkeztu ondoren, eta espedientea sustatu duen Legazpiko Udaleko Ogasun Sailaren adostasuna jaso ondoren egingo da, 30 eguneko epean, SPKLren 198.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Fakturak aurkezteko, Pleguaren 32. klausulan xedatutakoa bete beharko da.

Berandutze-interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak faktura behar bezala aurkeztu beharko du Faktura Elektronikoen Erregistroan, epe bakoitza amaitu eta 30 eguneko epearen barruan.

Primaren ordainketa atzeratzeak ez du kontratua suntsitzen, eta ez du Aseguru-erakundea salbuesten gertatzen diren ezbeharrei erantzuteko duen betebeharretik.

5.3 Aurretiazko eragiketak daude: Ez

5.4 Prezioak berrikustea: ez dagokio

5.6 Epe jakin batzuk edo errendimendu-helburu jakin batzuk betetzearen edo ez betetzearen arabera prezioa aldatzeko klausula: Ez

6. KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO GAUZATZEKO EPEA. LUZAPENA

6.1 Kontratuaren guztizko iraupena edo betearazpen-epea / amaiera-data: 2 urte.

6.2 Hasiera-data: 2027ko urtarrilaren 1eko 00:00etatik aurrera, edo kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera, data hori beranduagokoa bada.

6.3 Zatikako epeak: Ez

6.4 Luzatzeko aukera: Ez

Hala ere, hasieran aurreikusitako gehieneko epea igaro ondoren, prestazioaren jarraipena bermatuko duen kontratu berria formalizatu gabe egongo balitz, **SPKLren 29.4 artikuluaren azken paragrafoan** aurreikusitako luzapena aplikatuko da, zerbitzua berriro kontratatu arte, **gehienez 9 hilabetez**.

7. PUBLIZITATE GASTUAK: Ez dago

8. BERMEAK

8.1 Behin-behineko bermea: Ez

- **Behin betiko bermea**: Bai, eskatzen da: esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, esleipen-prezioaren % 5eko bermea.

8.2 Berme osagarria: Ez

8.3 Bermeak prezioaren atxikipen bidez eratzeko aukera: Ez

9. ASEGURUAK

Enpresa lizitatzaileek nahitaezko aseguruak eduki beharko dituzte.

10. <u>SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA:</u> Ez

11. <u>KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK</u>

11.1 Gizarte- edo enplegu-arlokoa

Kontratazio publikoan gizarte-klausula jakin batzuk txertatzeari buruzko apirilaren 7ko **3/2016 Legearen 7. artikuluan** xedatutakoa betez, baldintza orokorren **28.2 klausulan** jasotakoak..

Era berean, kontratua gauzatzeko baldintza berezia izango da esleipendunak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak betetzea.

11.2 Ingurumen-arlokoa

Zerbitzua ematen den bitartean txostenak eta dokumentuak aurkeztea:

Lan-dokumentuak:

Paper-kontsumoa murrizteko, zerbitzuan edo proiektuan sortutako lan-dokumentu guztiak formatu elektronikoan entregatuko dira, posta elektronikoz edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko esteken bidez edo FTP bidez), edo, bestela, berridazteko moduko eta geroago berrerabili ahal izateko formatu irekiko CD, DVD edo antzeko euskarrian.

Azken dokumentuak:

Azken dokumentuak, ahal dela, formatu elektronikoan entregatuko dira, posta elektronikoz edo zerbitzari bidez, edo, bestela, berridazteko moduko eta geroago berrerabili ahal izateko formatu irekiko CD, DVD edo antzeko euskarrian.

Dokumentuak inprimatzea beharrezkotzat jotzen bada edo kontratatzaileak berariaz eskatzen badu (lan-txostenak, bileretarako dokumentuak eta abar), esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu:

- Kontratatzailearekin adostea dokumentuak inprimatu behar diren ala ez, baldin eta hark ez badu zuzenean hala eskatzen.
- Ahal den neurrian, inprimatutako aleen kopurua murriztea, benetako premietara egokituz (bilera bateko parte-hartzaileen kopurua eta antzekoak), soberako alerik gera ez dadin.

- % 100 birziklatutako papera erabiltzea (gutxienez % 65 kontsumo osteko zuntzez osatua) edo, bestela, birziklatu gabeko papera erabiltzea, gutxienez baso-kudeaketa jasangarritik datozen eta/edo birziklatutako %20 zuntz-edukia duena.

- Kontratua hastean, erabiliko diren paper birziklatuen eta/edo birziklatu gabeen dokumentazioa aurkeztea (izena, marka eta ezaugarri tekniko nahiz ingurumenekoak), dokumentuak inprimatu behar badira, kontratatzaileak baimendu ditzan. Kontratuaren indarraldian aldaketarik gertatuz gero, horren berri eman eta kontratatzailearen onespena eskatu beharko da.

- Dokumentuak bi aldetatik inprimatzea, zuri-beltzean (kolorea zuri-beltzean interpretatu ezin denean baino ez da erabiliko), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago inprimatuz (egokia denean eta dokumentuaren ulergarritasuna bermatzen denean), ahalik eta gutxien koadernatuz eta plastikozko azalik gabe, birziklatzea errazteko.

Baldintza hori bereziki interesgarria da kontratua gauzatzeak ingurumenarengan duen eragina murrizteko.

Kontratuaren arduradunak baldintza hori betetzen dela gainbegiratuko du.

11.3 Etikoak: Ez

11.4 Linguistikoak: Baldintza-agiri honetako baldintza orokorren 28.1 klausulan jasotakoak.

11.5 Beste batzuk

11.5.1 <u>Azpikontratazioaren</u> arloan: baldintza-agiri honetako baldintza orokorren 28.3 klausulan jasotakoak, kontratazio publikoan zenbait klausula sozial txertatzeari buruzko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 7. artikuluan eta SPKLren 215.4 eta 217. artikuluetan xedatutakoa betez.

11.5.2 <u>Datuen babesaren arloan</u>: baldintza-agiri honetako baldintza orokorren 28.4 klausulan jasotakoak, SPKLren 202. Artikuluaren 1. apartatuan xedatutakoa betez.

Kontratistak datuen babesaren arloko Estatuko edo Europar Batasuneko araudia bete beharko du, eta betebehar horrek funtsezko kontratu-betebeharren izaera izango du.

OHARRA: kontuan *izan* behar da kontratua gauzatzeko baldintza bereziak azpikontratista guztiei ere aplikatuko zaizkiela.

12. KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-, GIZARTE- EDO LAN-ARLOKO BESTE BETEBEHAR BATZUK

12.1 Kontratuaren Funtsezko betebeharrak

12.1.1 Kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan ezarritako exekuzio-baldintza bereziak betetzea.

12.1.2 Kontratua gauzatzeko atxikitzea II. 2 ERANSKINEAN («Baliabideak atxikitzeko konpromisoa») jasotako erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako baliabideak, bai eta, hala badagokio, esleipen-prozeduran kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzeko erabilgarri zeudela edo bazituztela egiaztatu diren giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere.

12.1.3 Prestazioaren zati jakin batzuk edo lan zehatz batzuk kontratistak berak egitea, kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4 Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan ezarritako azpikontratazio-baldintzak betetzea, baldintza orokorren 34.1 klausulan xedatutakoaren arabera azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea, eta, hala badagokio, SPKLren 215.2 artikuluko c) letran aipatzen diren larrialdi- edo premia-egoera eragiten duten inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5 Beste batzuk:

- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua (PTP), hala badagokio, funtsezkotzat jotzen diren exekuzio-betebeharrak.
- Eskaintzan jasotako konpromisoak betetzea.

12.1.6 Datu pertsonalen tratamendua:

- Isilpekotasuna gordetzeko eta datu pertsonalak babesteko betebeharra.

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122. artikulua eta hogeita bosgarren xedapen gehigarria betez, bi alderdiak datuak babesteko indarrean dagoen araudiaren xedapenen mende daude: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (DBEO), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DPBEDBLO). Araudi hori izango da kontratazio-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa, eta nahitaez bete beharko dute

kontratistak eta, hala badagokio, atxikitako erakundeek. Bi alderdiek datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako betebehar eta xedapen guztiak errespetatu eta bete beharko dituzte. Era berean, nahitaez bete beharko dituzte klausula honetan eta gainerako pleguetan datu pertsonalen babesaren arloan ezarritako betebehar eta xedapen guztiak.

Bi alderdiek datu pertsonalen babesaren arloko araudia betetzeko duten konpromisoa exekuzio-baldintza berezia eta kontratuaren funtsezko betebeharra izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

Kontratuaren funtsezko betebeharren edozein ez-betetzea arau-hauste larritzat joko da, SPKLren 71.2.c) artikuluaren ondorioetarako

12.2 Ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako beste betebehar batzuk

12.2.1. Ingurumen-arloko betebeharrak: Administrazio-agiri honen baldintza orokorren 27. klausulan aurreikusitakoak.

12.2.2 Gizarte- edo lan-arloko betebeharrak: bai.

Aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera langileen soldata-baldintzak betetzea, SPKLren 122.2 artikuluaren ondorioetarako.

12.2.3 Beste batzuk: administrazio-klausula hauen klausula orokorren 27. klausulan aurreikusitakoak.

13. <u>ZIGORRAK</u>

13.1 Baldintza orokorren 31.1 klausulan aurreikusitakoez gain, honako zigor hauek ezartzen dira.

a) KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epea —epe osoa nahiz, hala badagokio, epe partzialak— betetzean atzerapena badu, Administrazioak aukeran izango du kontratua suntsiaraztea, bermea galduta, edo kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko eguneko 0,60 euroko zigorra ezartzea. Atzerapenagatiko zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen den bakoitzean, kontratazio-organoak kontratua suntsiaraztea edo kontratua gauzatzen jarraitzea erabaki ahal izango

du, zigor berriak ezarrita.

b) PRESTAZIOAK ZATI BATEAN EZ BETETZEA

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan definitutako prestazioak zati batean betetzen ez baditu, Administrazioak aukeran izango du kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren prezio osoaren % 10era arteko zigorra ezartzea, BEZik gabe.

c) BETETZE AKASTUNA

Prestazioa behar bezala betetzen ez bada, Administrazioak kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango du, BEZik gabe.

d) KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

Betearazpen-baldintza horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eragiten ez duenean, kontratuaren betearazpenarekin jarraituko da, eta kontratazio-organoak ezarriko du penalizazioa, haren larritasunaren eta ondorioen arabera, kontratuaren prezioaren % 3tik % 10era bitartekoa, BEZa kanpo, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 192. artikuluaren arabera, baloratuta.

e) BALORAZIO-IRIZPIDEAK EZ BETETZEA

Kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra.

f) AZPIKONTRATAZIOA EGITEKO BALDINTZAK EZ BETETZEA

SPKLren 215.2 artikuluan ezarritako azpikontratazioa egiteko baldintzak ez betetzeagatik, edo azpikontratistaren gaitasuna nahiz larrialdi- edo azpikontratazioa presaz egitea eragiten duten inguruabarrak egiaztatu ez izanagatik ere: azpikontratuaren zenbatekoaren % 50era arteko zigorra.

g) Europar Batasuneko zuzenbidean, Estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duen beste edozein xedapenetan, eta bereziki SPKLren V. eranskinean jasotako nazioarteko hitzarmenetan ezarritako ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak ez betetzeagatik, betiere betebehar horiek pleguan edo karatula honetan kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa berariaz jasota ez badaude. Kasu horretan, aipatutako xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da. Zigorra kontratuaren prezioaren % 10era artekoa izango da, BEZik gabe.

h) Esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileak eskatutako dokumentazioa adierazitako epean behar bezala aurkezten ez badu: lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zigorra, BEZa kanpo.

i) Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean

formalizatzen ez bada: lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zigorra, BEZik gabe.

14. AZPIKONTRATAZIOA.

14.1 Prestazio partzialak AZPIKONTRATATZEKO baldintzak

- Zeregin kritiko batzuek EZ dute azpikontrataziorik onartzen.
  - ☒Ez
  - ☐ Bai. Zein:

14.2 Operadore ekonomikoek eman beharreko informazioa eta/edo dokumentazioa:

Lizitatzaileek, esleipena egin aurretik, A gutun-azalean adierazi beharko dituzte, administrazio-klausula honetako klausula espezifikoen 24.1 apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz:

a) Administrazio-klausula honetako baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazitako datuak, **EKAB agiriaren II. zatiaren D atala betez**.

15. PRESTAZIOAREN EGIKARITZEA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA.

15.1. Prestazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko modua: kontratuaren arduradunak egindako egiaztapen-txostena.

15.2 Jasotzeko epea: hilabete BAT (1).

15.3 Harrera partzialak daude: Ez.

15.4 Berme-epea: Kontratatutako zerbitzuek beren prestazioak kontratua gauzatzearekin batera amaitzen dituztenez, ez da beharrezkotzat jotzen berme-eperik ezartzea.

16. KONTRATUA ALDATZEA

16.1 Kontratua aldatu ahal izango da honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

- Estaldura-premia berriak sortzen direnena; adibidez, arau-aldaketen ondorioz estaldura berriak sartu behar direnean.

- Aseguru-polizetan aseguratutako zenbatekoak handitzen direnean.

Aldaketa horien zenbatekoak ezingo du gainditu kontratuaren lote bakoitzaren gehieneko lizitazio-aurrekontuaren % 20.

Aldaketa hasierako kontratuan aseguratutako ondasunen eta/edo pertsonen zenbatekoaren proportzioan egingo da.

Aldaketa horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira esleipendunarentzat. Aldaketak egin aurretik, esleipendunari entzunaldia emango zaio, eta aldaketak administrazio-dokumentuan formalizatu beharko dira, behin betiko bermea egokitu ondoren.

Aseguru berriak kontratatzeko premiak ez du kontratua aldatzeko aukerarik emango, baldin eta arrisku horiek kontratuaren baldintza teknikoetan aurreikusita ez badaude.

16.2 Gainerako kasuetan, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da, SPKLren 205. artikuluan ezarritako inguruabarrak eta mugak kontuan hartuta.

Aldaketak SPKLren 207. Artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

17. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ZEHATZAK

Baldintza orokorren 38. klausulan aurreikusitakoez gain, kontratua suntsiarazteko beste arrazoi batzuk ezartzen dira. Bai, horren ondorioz kontratua suntsiaraziko da:

- Esleipendunak administrazio-klausula hauen 12.1 klausula espezifikoan aurreikusitako kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzea.

18. KONTRATUAREN XEDE DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

.

18.1 Kontratistak Baldintza Orokorren 25.2 klausulan xedatutako lan-programa aurkezteko betebeharra: Ez.

18.2 Datu pertsonalak tratatzeko neurri bereziak ezartzen dira:

- Isilpekotasuna gordetzeko eta datu pertsonalak babesteko betebeharra.

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122. artikuluan eta hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez, bi alderdiak datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren mende egongo dira, hau da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (DBEO), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DPBEDBLO). Araudi hori izango da kontratazio-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa, eta nahitaez bete beharko dute kontratistak eta, hala badagokio, atxikitako erakundeek. Bi alderdiek datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako betebehar eta xedapen guztiak errespetatu eta bete beharko dituzte.

18.3 Prestazioaren zati batzuk edo lan jakin batzuk kontratistak berak egin beharko ditu, SPKLren 75.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz: administrazio-klausula hauen 14. klausula espezifikoan adierazitakoaren arabera.

18.4 Beste batzuk: Ez

II.- ESLEIPEN-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK.

19. ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK

19.1 Botere esleitzailea: Legazpiko Udala.

19.2 Organoen identifikazioa.

19.2.4 Kontratazio-organoa: Gobernu Batzordea

19.2.5 Organo hartzailea:

Legazpiko Udala

Posta helbidea: Euskal Herria Enparantza Plaza 1, 20230

Legazpi (Gipuzkoa)

19.2.6 Kontratuaren arduraduna: Giza Baliabideetako eta Kontratazioko teknikaria.

19.2.7 Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: udaleko kontu-hartzailea

19.2.8 Kontratazio Zentrala. Kontratua esleitzen duen organoak beste erakunde baten izenean jarduten du: Ez

19.2.9 Kontratazio-mahaiaren osaera:

Presidentea: Eric Galvez Alvarez, alkatea.

Batzordekideak:
Iñaki Gastañares, udal-idazkaria.
Fernando Arakama, udaleko kontu-hartzailea.
Ainhoa Urruela, Giza Baliabideetako eta Kontratazioko teknikaria.
Ibon Alzelai, Legazpiko EH Bilduko zinegotzia.

Idazkaria: Nerea Ruiz de Azua, administraria.

19.2.10 Adituen batzordea/erakunde tekniko espezializatua: Ez

19.3 Esleipen-prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea:
Kontratazio Saila

19.4 Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- Kontratazio Zerbitzua.
- Helbide elektronikoa: aurruela@Legazpi.eus
- Telefono-zenbakia: 943 73 70 30

19.5 Alderdi juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- Kontratazio Zerbitzua.
- Helbide elektronikoa: aurruela@Legazpi.eus
- Telefono-zenbakia: 943 73 70 30

19.6 Erregistroak:

19.6.4 ESKAINTZAK AURKEZTEKO ERREGISTROA: Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren Erregistroa. Enpresa lizitatzaileek beren eskaintza elektronikoak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako lizitazio elektronikoko aplikazioaren bidez aurkeztu beharko dituzte, helbide honetan: www.contratacion.euskadi.eus (ikus baldintza orokorren 12.2.1 klausula).

- **Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza zerbitzua (Eusko Jaurlaritza):**

Tel.: 945016298.

19.6.5 Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa: Legazpiko Udalaren faktura elektronikoak aurkezteko sarrera-puntu orokorra, udalaren webgunean eskuragarri dago.

20. IZAPIDETZEA ETA ESLEIPEN-PROZEDURA

20.1 Erregulazio harmonizatuko kontratua: bai, SPKLren 22.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

20.2 Izapidetzea: ohikoa

20.3 Prozedura: irekia

20.4 Lotetan banatzeari buruzko informazioa: bai, kontratua 3 lotetan banatzen da.

20.5 Izapidetzeko bitartekoak: ELEKTRONIKOAK, Administrazio Baldintza Agiri honetako baldintza orokorren 12. apartatuan xedatutakoaren arabera. **EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN PLATAFORMAN** kokatutako **LIZITAZIO ELEKTRONIKOA** izeneko aplikazioaren bidez.

20.6 Enkante elektronikoa: Ez

20.7 Gizarteratzeko Enplegu Zentro Berezientzat eta laneratzeko enpresentzat erreserbatutako kontratua, edo enplegu babestuko programen esparruan sartzen den kontratua: Ez.

20.8 Erakunde jakin batzuentzat erreserbatutako kontratua, gizarte-, kultura- edo osasun-zerbitzuetako kontratua izateagatik, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera: Ez

21. KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA ETA BALIABIDEAK ATXIKITZEA

21.1 Gutxieneko kaudimen-baldintzak betetzeko betebeharra: bai, administrazio-klausula hauen 21.2 klausula espezifikoan xedatutakoaren arabera.

21.2 KAUDIMENA: operadore ekonomikoek kaudimen hau izan beharko dute:

21.2.1 EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA.

Betekizuna: urteko negozio-bolumena

- Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru ekitaldietatik negozio-bolumen handiena izan duen ekitaldiari dagokiona, gutxienez honako hau izango da:

- 1. LOTEA: 60.000 €
- 2. LOTEA: 75.000 €
- 3. LOTEA: 85.000 €

- Honako agiri hauen bidez egiaztatuko da:

a) Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoen enpresaburuaren kasuan, onartutako eta erregistro horretan gordailututako urteko kontuen bidez.

b) Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez badago, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuen bidez.

c) Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualen kasuan, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez.

d) Erregistro ofizial batean ere urteko kontuak gordailutu edo legeztatu ez dituzten lizitatzaileen kasuan, AKPren V.5 eranskina betez

Oharra: urteko negozio-bolumentzat joko da merkataritza-legerian ezarritako urteko kontuen eredu arautuetako galera eta irabazien kontuan ageri den negozio-zifraren zenbateko garbia.

21.2.2 GAITASUN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA.

21.2.2.1 <u>Betekizuna:</u> aldez aurretik antzeko zerbitzuak eman izana

- Lizitatzaileek, azken hiru urteetan, kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzeko zerbitzuak emanak izan beharko dituzte. Amaitutako azken hiru ekitaldietatik exekuzio handiena izan duen ekitaldian metatutako urteko zenbatekoak, gutxienez, kontratu honen urteko batez besteko zenbatekoaren % 70ekoa izan beharko du (BEZa kanpo). Zenbatekoak honako hauek izango dira:

- 1 LOTEA: 42.000 €

- 2 LOTEA: 52.500 €
- 3 LOTEA: 59.500 €

Hori egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztuz. Zerrendak zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua jaso beharko ditu:

a) Hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan bada, zerbitzuak edo lanak egin direla egiaztatzen duten organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak, edo hori modu fede-emailean egiaztatzen duten bestelako agiriak.

b) Hartzailea subjektu pribatu bat izan bada, hark emandako ziurtagiria edo, halakorik ezean, enpresa lizitatzailearen adierazpena. Azken kasu horretan, Administrazioak adierazpenaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du.

21.2.2.2 Enpresa sortu berrientzako baldintza, BOST (5) urtetik beherako antzinatasuna izatea, SPKL 90.4: Ez dagokio.

Baldintza orokorren 11.4 klausulako bigarren paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, kaudimen-baldintza horiek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak baino ez ditu egiaztatu beharko, apartatu honetan adierazitako agirien bidez..

21.3 Kaudimena egiaztatzea sailkapenaren bidez: Ez dagokio

21.4 Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: bai, honako agiri hauen bidez:

A) Erakunde Aseguratzaileen Erregistro Berezian inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
B) Jarduteko baimena duten aseguru- adarrak egiaztatzen dituen agiria.

21.5 Pertsona juridikoek prestazioa gauzatzeaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa aurkeztu behar dituzte: Ez

21.6 BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEA:

Enpresa esleipendunak zerbitzua behar bezala emateko behar diren giza baliabideak izan beharko ditu, eta bere gain hartuko ditu langile horiekin duen mendekotasun-harremanetik eratorritako kostu guztiak. Langile horiek ez dute, inola ere, administrazio- edo lan-

harremanik izango Legazpiko Udalarekin, eta, ondorioz, Udala salbuetsita geratuko da enpresaren eta haren langileen arteko harremanetatik erator daitekeen edozein erantzukizunetatik..

Kontratistek administrazio-klausula hauetan aurreikusitako zerbitzuak ahalik eta baldintzarik onenetan emateko behar den antolaketa-egitura aurreikusi beharko dute.

22. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

22.1 Esleipen-irizpide bakarra dago: Ez

22.2 Esleipen-irizpide bat baino gehiago daude: Bai.

- **BALIO-JUDIZIO** BATEN ARABERA KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK: Ez.
- **AUTOMATIKOKI** BALORATZEN DIREN IRIZPIDEAK: Bai. Administrazio-klausula hauen 22.2.2 apartatuan jasotako irizpideak dira, formulak aplikatuz automatikoki baloratuko direnak. Gehienez 100 puntu emango dira:

22.2.1 BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK: (B GUTUN-AZALA): Ez badago

22.2.2 **FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI** BALORATZEN DIREN IRIZPIDEAK (C GUTUN-AZALA): BAI, gehienez 100 puntu LOTE bakoitzeko, honako irizpide hauen arabera banatuta:

1. LOTEA: ERANTZUKIZUN ZIBILA / ONDARE-ERANTZUKIZUNA

Prezioa: 80 puntu.

Lizitatzaileek urteko guztizko prima eskainiko dute, polizaren indarraldirako. Eskaintzak honako formula honen arabera baloratuko dira: 80 X (PL-OF/PL-OM)

-PL= Lizitazio prezioa

-OF= Lizitatzailearen eskaintza

-OM= Aurkeztutako eskaintzarik baxuena

Hobekuntzak: 20 puntu

-Aseguratutako mugen gehikuntza: (7 puntu arte), honela banatuta:

a) Ustiapeneko erantzukizun zibileko / ondare-erantzukizuneko ezbehar bakoitzeko

mugaren gehikuntza: gehienez 2,5 puntu

2,5 puntu emango zaizkio ustiapeneko erantzukizun zibileko/ondare-erantzukizuneko ezbehar bakoitzeko muga orokorrean gehikuntzarik handiena egiten duen lizitatzaileari. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, eskainitako gehikuntzaren arabera, honako formula hau erabiliz:

2,5 x (IOL/IOB)

Non, 2,5 lortu daitekeen gehieneko puntuazioa den.

IOL irizpide honetarako baloratzen den eskaintzak proposatutako gehikuntza den eta IOB onartutako lizitatzaileen artean proposatutako gehikuntzarik handiena den.

Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritako mugak handitzen ez dituzten eskaintzek 0 puntu lortuko dituzte.

b) Lan-istripuetako biktima bakoitzeko mugaren gehikuntza (enpresaburuaren erantzukizuna eta erantzukizun gurutzatua): gehienez 2,5 puntu.

2,5 puntu emango zaizkio lan-istripuetako biktima bakoitzeko mugan (enpresaburuaren erantzukizuna eta erantzukizun gurutzatua) gehikuntzarik handiena egiten duen lizitatzaileari. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, eskainitako gehikuntzaren arabera, honako formula hau erabiliz:

2,5 x (IOL/IOB)

Non 2,5 lortu daitekeen gehieneko puntuazioa den.

IOL irizpide honetarako baloratzen den eskaintzak proposatutako gehikuntza den eta IOB onartutako lizitatzaileen artean proposatutako gehikuntzarik handiena den.

Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritako mugak handitzen ez dituzten eskaintzek 0 puntu lortuko dituzte.

c) Aurretiazko kalte material eta/edo gorputzeko kalte baten ondorio ez diren kalteen (kalte ekonomiko hutsak) mugaren gehikuntza: gehienez 2 puntu.

2 puntu emango zaizkio aurretiazko kalte material eta/edo gorputzeko kalte baten ondorio ez diren kalteen (kalte ekonomiko hutsak) mugaren gehikuntzarik handiena eskaintzen duen lizitatzaileari. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, eskainitako

gehikuntzaren arabera, honako formula hau erabiliz:

2 x (IOL/IOB)

Non 2 lortu daitekeen gehieneko puntuazioa den,

IOL irizpide honetarako baloratzen den eskaintzak proposatutako gehikuntza den eta IOB onartutako lizitatzaileen artean proposatutako gehikuntzarik handiena den.

Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritako mugak handitzen ez dituzten eskaintzek 0 puntu lortuko dituzte.

- Estalduraren denbora-eremua zabaltzea: 10 puntu

10 puntu emango dira 24 hilabeteko atzeraeragin-aldia barne hartzeagatik, eta 0 puntu barne hartzen ez bada.

Horrela, estalduraren denbora-eremuaren idazketa honela geratuko da, epe hori zabaltzen duen lizitatzailearentzat:

Aseguru-polizaren estaldurak, adostutako baldintzetan, Aseguratuaren Erantzukizun Zibilera mugatzen dira. Erantzukizun hori aseguruaren indarraldian gertatutako kalteetatik eratorritakoa izango da, baldin eta kalte horien ondoriozko erreklamazioa Aseguratuari eta/edo Aseguratzaileari egiten bazaio, polizaren indarraldian edo poliza bertan behera utzi eta gehienez 24 hilabeteko epean, zuzeneko akzioa baliatuz.

Aurrekoa gorabehera, poliza honen estaldurak barne hartuko ditu, halaber, Aseguratuak aseguramendu-aldiaren hasieran ezagutzen ez zituen ezbeharrak, baldin eta ezbeharrak poliza hau indarrean sartu baino bi urte lehenagora arte gertatu badira, azken poliza honen aseguramendu-aldian jakinarazten badira eta aurretik kontratatutako beste poliza batzuek estaltzen ez badituzte.

- <u>Frankizia orokorra murriztea: gehienez 1,5 puntu</u>

1,5 puntu emango zaizkio Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritako frankiziaren (900 €) gainean murrizketarik handiena eskaintzen duen lizitatzaileari. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, eskainitako murrizketaren arabera, honako formula hau erabiliz:

1,5 x (IOL/IOB)

Non 1,5 lortu daitekeen gehieneko puntuazioa den.

IOL irizpide honetarako baloratzen den eskaintzak proposatutako frankizia-murrizketa den eta IOB onartutako lizitatzaileen artean eskainitako frankizia-murrizketarik handiena den.

- PPP frankizia murriztea: gehienez 1,5 puntu

1,5 puntu emango zaizkio Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritako PPP frankiziaren (3.000 €) gainean murrizketarik handiena eskaintzen duen lizitatzaileari. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira, eskainitako murrizketaren arabera, honako formula hau erabiliz:

1,5 x (IOL/IOB)

Non 1,5 lortu daitekeen gehieneko puntuazioa den.

IOL irizpide honetarako baloratzen den lizitatzaileak eskainitako murrizketa den eta IOB onartutako lizitatzaileen artean eskainitako murrizketarik handiena den.

2. LOTEA: KALTE MATERIALAK

Formulen bidez ebaluatuko diren irizpideak

Legazpiko Udalaren Kalte Materialen lizitazioa arautuko duten balorazio-irizpideak automatikoki aplikatuko dira, eta honako hauek izango dira:

A.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN IRIZPIDEA. PRIMA (gehienez 60 puntu)

Lizitatzaileek polizaren indarraldirako urteko prima osoa eskainiko dute. Eskaintzak honako formula honen arabera baloratuko dira: 60 x (PL-OF/PL-OM)

-PL= Lizitazio prezioa

-OF= Lizitatzailearen eskaintza

-OM= Aurkeztutako eskaintzarik baxuena

B.- FORMULEN BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN BESTE IRIZPIDE BATZUK (gehienez 40 PUNTU)

Jarraian adierazitako puntuak esleituko dira, lizitatzaileak ondorengo estaldurak eskaintzen dituen ala ez kontuan hartuta. Estaldurak eskaintzen ez badira, 0 puntu emango dira. Ez

dira baloratuko jarraian zehazten direnak ez diren beste estaldura batzuk:

B.1.) Estalduren hobetzea: gehienez 34 puntu.

- Polizaren estalduraren esparruan aseguratutako arrisku-egoeretatik kanpo dauden HIRI-ALTZARIAK sartzea (10 puntu). Adibide gisa: edukiontziak, farolak, bankuak eta abar, 10.000 euroko mugarekin ezbehar eta urte bakoitzeko, eta soilik Sutea, Tximista eta Leherketa bermeetarako. Hobekuntza honi dagokionez, lizitatzaileak eskainitako frankizia orokorra aplikatuko da.

- Konpontzaileen Zerbitzua sartzea (10 puntu): Estalitako ezbeharren ondoriozko kalte materialak artatu eta konponketa guztiz amaitu arte behar diren jarduketak egitea. Zerbitzua, oro har, 48 orduko epean emango da, eta 24 orduko epean, premiazko kasuetan. Aseguratzaileak etengabe erabilgarri egongo den laguntza-sare bat izan beharko du, honako lanbide hauetako profesional kualifikatuekin: iturgintza eta elektrizitatea; pintura; sarrailagintza; kristalak garbitzea eta garbiketa orokorrak, arotzeria, metalezko arotzeria, beiragintza, pertsianak, moketak, parketa, tapizeria eta bernizatzea; antenak eta atezain automatikoak; etxetresna elektrikoak, telebista eta bideoa; igeltserotza, igeltsua eta eskaiola, eta obra-kontratak. Berme hori lizitatzaileak eskaintzen duen guztietan aplikatuko da, frankizia orokorra badagoen ala ez kontuan hartu gabe. Frankiziaren zenbatekoa, hala badagokio, aseguru-hartzaileak bere gain hartuko du.

- Aseguratutako instalazioetatik kanpo dauden Ekipamendu Elektronikoak estaltzea (5 puntu): estaldura honen bidez, aseguratuaren ekipo mugikor eta/edo eramangarrietara zabaltzen da polizaren estaldura, aseguratutako instalazioetatik kanpo erabiltzen direnean, 20.000 euroko mugarekin ezbehar bakoitzeko eta 40.000 euroko mugarekin urte bakoitzeko. Aseguratzaileak ez ditu estaliko instalazio aseguratuetatik kanpo dauden ekipamenduei lapurreta, espoliazio edo erasoaren ondorioz eragindako kalteak, salbu eta honako kasu hauetan:

- Lekualdatzeak eta egonaldiak irauten duten bitartean, zaintzaz arduratzen diren pertsonen kontrol eta zaintza zuzenean badaude.
- Etengabeko zaintza duen eraikin batean gordeta badaude.
- Aseguratuaren edo haren langileen jabetzako ibilgailuaren baten maletategiaren barruan badaude, kanpotik ikusi ezin den leku batean. Lapurreta 22:00etatik aurrera gertatzen bada, ibilgailua garaje itxi batean edo zaindutako aparkaleku batean egon beharko da.

Berme honen pean, Aseguratzaileak ez du erantzukizunik izango:

- Muntaketa- eta desmuntaketa-eragiketak.
- Ebasketak, desagerpenak eta inbentarioa egitean aurkitutako edozein falta.
- Langileen edo Aseguratuaren zerbitzura dagoen beste edozein pertsonaren desleialtasunak.
- Estatuko lurraldetik kanpo gertatutakoak.

Hobekuntza horri lizitatzaileak eskainitako frankizia orokorra aplikatuko zaio.

- **Administrazio-akatsen klausula (5 puntu):** Bitartekariak edo aseguru-hartzaileak egindako nahita gabeko edozein akats edo omisiok ez du emandako asegurua baliogabetuko edo kaltetuko, baldin eta bitartekariak edo aseguru-hartzaileak akats edo omisio horren berri ematen badu, hura aurkitu bezain laster.

Era berean, administrazio-akats edo beste edozein motatako akats bat gertatuz gero, Aseguratzaileak aseguruaren estaldura bere gain hartuko du, akatsa gertatu izan ez balitz bezala, aldeen fede ona muga bakartzat hartuta, salbu eta fede txarra edo asegururik ez egiteko borondatea egon bada.

Nahigabeko omisioren bat gertatzen bada, automatikoki sartuko dira polizan Tokiko Erakundearen, haren mendeko erakundeen edo organismo autonomoen jabetzakoak diren ondasunak, edo kontratua formalizatu aurretik, edozein tituluren bidez haren esku zeuden ondasunak. Titulartasuna egiaztatzeko nahikoa izango da idazkariaren ziurtagiria aurkeztea edo jabetza-, lagapen- edo edukitza-tituluak erakustea. Alde batera utzitako ondasunen balioak ezingo du gainditu, guztira, aitortutako kapital aseguratuaren % 5.

- **Arau proportzionala erabat indargabetzea (4 puntu):** Horren truke, Aseguratuak konpromisoa hartzen du aseguratutako ondasunen (edukitzailea eta edukia) zerrenda urtero eguneratzeko.

B.2.) Baldintza Teknikoen Pleguan (PTP) aurreikusitako frankizia murriztea. Gehienez, 6 puntu.

PTPn ezarritako gehieneko frankiziarekin alderatuta frankizia orokorra murrizteagatik lortutako puntuazioa honako formula honen bidez kalkulatuko da**: 6 x (FMP - FOV / FMP - MFO)**

- FMP: PTPn ezarritako gehieneko frankizia.

- FOV: Baloratu beharreko eskaintzaren frankizia.

- MFO: Eskainitako frankiziarik onena

3 LOTEA: BIZI- ETA ISTRIPU-ASEGURUA

A.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN IRIZPIDEA. PRIMA (85 puntu arte)

Lizitatzaileek urteko guztizko prima eskainiko dute, polizaren indarraldirako. Eskaintzak honako formula honen arabera baloratuko dira: *85 x (PL-OF/PL-OM)*

-PL= Lizitazio prezioa

-OF= Lizitatzailearen eskaintza

-OM= Aurkeztutako eskaintzarik baxuena

B.- FORMULEZ BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN BESTE IRIZPIDE BATZUK (15 PUNTU ARTE)

Jarraian adierazitako puntuak esleituko dira, lizitatzaileak ondorengo hobekuntzak eskaintzen dituen ala ez kontuan hartuta. Estaldurak eskaintzen ez badira, **0 puntu** emango dira. Jarraian zehazten diren estaldurez bestelakoak ez dira baloratuko, ezta kontuan hartuko ere.

- *BIZI-ASEGURUAREN POLIZAN MOZKINEN PARTE HARTZEA* ------- 5 PUNTU

Gehieneko puntuazioa mozkinetan parte-hartze handiena, ehunekotan baloratuta, eskaintzen duen proposamenari emango zaio. Gainerako proposamenak proportzioan baloratuko dira. 0 puntu emango zaio mozkinetan % 0ko parte-hartzea eskaintzen duenari.

Mozkinetan parte hartzeari dagokionez, aldeko ezbehar-tasaren arabera, honako arau hauek aplikatuko dira:

1) Aldeko desbideratzea kalkulatzeko, ordaindutako prima garbien zenbatekotik administrazio-gastuak kenduko dira (prima garbiaren % 15), eta emaitza aldi berean gertatutako ezbeharren zenbatekoarekin alderatuko da. Aldeko desbideratzea bi zenbateko horien arteko diferentzia izango da.

2) Lortutako aldeko desbideratzeari Mozkinetan Parte Hartzeko eskainitako ehunekoa aplikatuko zaio. Lizitatzaile bakoitzak atal honetan eskaintzen duen ehunekoa adierazi beharko du (XX %).

3) Ezbehar-tasaren desbideratzea kontrakoa bada, Aseguratzaileak bere gain hartuko du urteko galera osoa, eta Aseguru-Hartzaileak ez du inolako kalterik izango hurrengo urteetako tarifa-primaren doikuntza egitean.

4) Kontratua berritzen ez bada, Aseguratzaileak poliza baliogabetu aurreko aseguru-urteari dagokion mozkinetako partaidetzaren zenbatekoa ordainduko du, aurreko arau hauetan ezarritakoaren arabera.

- *BERMEEN ZABALKUNTZA..... 10 PUNTU*

Proposamena gehienez 10 punturekin baloratuko da, honako banaketa honen arabera:

- 3.000 €, etxebizitza egokitzeko gastuak itzultzeko, aseguru-kontratuak estalitako ezbehar baten ondorioz erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia gertatzen bada, ... 2,5 puntu
- 2.000 € ibilgailua egokitzeko gastuak itzultzeko, aseguru-kontratuak estalitako ezbehar baten ondorioz erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia gertatzen bada..... 2,5 puntu
- 1.000 € gurpildun aulkia erosteko gastuak ordaintzeko, aseguru-kontratuak estalitako ezbehar baten ondorioz erabateko ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasun handia gertatzen bada ..... 2,5 puntu
- 10.000 €ko zenbateko gehigarria, aseguratua eta haren ezkontidea istripu berean hiltzen badira eta 18 urtetik beherako seme-alabak edo adin nagusiko seme-alaba ezgaituak badituzte ..... 2,5 puntu

22.3 ESKAINTZA ANORMALKI BAXUAK:

Eskaintza ekonomikoari dagokionez, eskaintza anormalki baxua dela jotzeko honako parametro edo muga hauek ezartzen dira

Eskaintzaren izaera anormala dela zehazteko parametro objektiboak, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan aurreikusitako arauen arabera.

22.4 GUTXIENEKO PUNTUAZIO-ATALASEA: Ez

23. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

Bi enpresa lizitatzaileren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen arabera, esleipen-proposamena honako inguruabar hau egiaztatzen duen lizitatzailearen alde egingo da, lehentasun-hurrenkera honetan:

1.- % 2tik gorako desgaitasuna duten langileen kopuru handiagoa izatea.

2. Irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea.

3. Laneratze-enpresa izatea.

24. GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren agiriak jarraian adierazitako artxibo elektroniko edo gutun-azalen barruan aurkeztu beharko dira.

24.1 "A" GUTUN-AZALA/ARTXIBOA: AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA

Gutun-azal honetan baldintza orokorrean 13.1 klausulan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

EKABaren IV. zatiari dagokionez, operadore ekonomikoak a) atala baino ez du bete beharko: Bai/Ez

OHARRA: A gutun-azal honetan ezingo da, inola ere, eskaintza ekonomikoari buruzko informaziorik, ezta formulak aplikatuz edo automatikoki baloratzeko moduko irizpideei buruzko informaziorik ere sartu. Hala eginez gero, eskaintza baztertu egingo da. Lizitatzaile bakarra badago, kontratazio-mahaiak erabakiko du.

24.2 "B" GUTUN-AZALA/ARTXIBOA: BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO ESKAINTZA: Ez dago

24.3 "C" GUTUN-AZALA/ARTXIBOA: FORMULAK APLIKATUZ EDO AUTOMATIKOKI BALORATZEKO MODUKO ESKAINTZA

Gutun-azal honetan honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- AKPren IV.1 ERANSKINA. Honako hauek jasotzen ditu:

- ESKAINTZA EKONOMIKOA, lote bakoitzerako ezarritako ereduaren arabera.

- KONPROMISO-ADIERAZPENA, administrazio-klausula hauen 22.2.2 apartatuan ezarritako gainerako balorazio-irizpide automatikoak baloratzeko.

24.4 Aldaerak onartzen dira: Ez

25. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Baldintza orokorren 21.1 klausulan adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera, hala badagokio, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

25.1 Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan jasotako ekonomia- eta finantza-kaudimeneko eta gaitasun tekniko edo profesionaleko betekizunak egiaztatzeko dokumentazioa:

Ekonomia- eta finantza-kaudimenari dagokionez, klausula espezifikoen 21.2.1 apartatuan adierazitakoa.

Gaitasun tekniko edo profesionalari dagokionez, klausula espezifikoen 21.2.2 apartatuan adierazitakoa.

25.2 Kontratuaren klausula espezifikoen 21.6 klausulan aipatzen diren baliabide materialak eta giza baliabideak erabilgarri dituela egiaztatzeko dokumentazioa:

26. PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

26.1 Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

26.1.1 Eskaerak egiteko azken eguna: proposamenak aurkezteko epea amaitu baino 6 egun lehenago.

26.1.2 Eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino 4 egun lehenago.

26.2 Kontratazio-organoak kontratua egiteari uko egiten dionean edo prozeduran atzera egiten duenean, berariazko konpentsazio-araubiderik aurreikusten da: Ez

26.3 Kontratua esleitzeko, SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoa ez den gehieneko eperik ezartzen da: Ez

26.4 Baldintza orokorren 23.1 klausulan adierazitakoez gain, kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharreko dokumentazio gehigarria: Ez

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK.

27. KONTRATUA LAGATZEA

Baldintza orokorren 35.1.1 klausulan aurreikusitakoez gain, kontratua lagatzeko beste kasurik aurreikusten da: Ez

28. ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko, enpresa esleipendunari honako agiri hauek eskatuko zaizkio:

- Enpresak lan-arriskuen prebentzioaren arloan duen antolaketa-modalitatea.
- Bete beharreko lanpostuei dagozkien arriskuen ebaluazioa eta hartu beharreko prebentzio-neurriak.
- Lanposturako eskatzen den prebentzio-arloko prestakuntza eta informazioa jaso direla egiaztatzen duten agiriak

29. PROZEDURAN ETA KONTRATUAN GIZARTE-, INGURUMEN- ETA BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEI LOTUTAKO ALDERDIAK TXERTATU DIREN EGIAZTATZEKO JARRAIPEN-KOADROA

Alderdiak:	**SOZIALAK** EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK				**INGURUMENA**	**LINGUISTIKOAK**
	BEREZIKI			**BESTE BATZUK**		
	Laneratzea	Emakumeen eta gizonen arteko	Lan-arriskuen prebentzioa			

		berdin tasun a				
Kontratuaren xedea						
Kaudimen- / betekizunak						
Zehaztapen teknikoak						
Esleipen- / irizpideak						
Kontratua gauzatzeko / baldintza bereziak				**BAI**	**BAI**	

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea kontratuaren klausula espezifikoen 1. klausulan adierazten da, eta preskripzio tekniko partikularren pleguan definitzen da.

Kontratuaren xedea lotetan banatuta dagoenean, kontratuaren klausula espezifikoen 1.2 klausulan adierazten da lote bakoitzaren xedea, eta preskripzio tekniko partikularren pleguan definitzen da. Prestazioaren CPVa eta dagokion zerbitzu-kategoria kontratuaren klausula espezifikoen 1.3 eta 1.5 klausuletan adierazten dira, hurrenez hurren.

Kontratua ondoz ondoko traktuko kontratua denean, eta haren xedea osatzen duten prestazio-unitateen kopurua zehaztasunez definitzen ez denean, kontratistak gauzatu beharko dituen prestazio-unitateak botere adjudikatzaileak eskatzen dituenak izango dira.

2. KONTRATU-DOKUMENTUAK.

Honako agiri hauek kontratu-izaera dute:

a) Administrazio klausula partikularren plegua (AKP).

b) Preskripzio tekniko partikularren plegua (PTP).

c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.

d) Lan-programa, kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala zehazten denean.

3. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

3.1 Kontratua administrazio-izaerakoa da, eta ondoren adierazten diren arau eta agirien arabera arautuko da.

3.2 Kontratu- agirietan aurreikusi ez den orotan, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).

b) Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), SPKLn xedatutakoaren aurka ez doan neurrian.

c) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, SPKLn xedatutakoaren aurka ez doan neurrian.

d) Estatuko nahiz tokiko kontratazioa arautzen duen eta aplikagarria den beste edozein xedapen.

e) Datuen babesaren arloko Estatuko eta Europar Batasunekoa araudia.

Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3.3 Alderdiek berariaz bete beharko dute kontratu-agirietan ezarritakoa.

Agiri horietan ezarritakoa ez ezagutzeak ez du kontratista hura betetzeko betebeharretik salbuesten, eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

4 ZERGEN, INGURUMENAREN, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN, ENPLEGUAREN BABESAREN, LAN-BALDINTZEN, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREN, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEAREN**, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO JAKIN BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRAREN ETA DATUEN BABESAREN ARLOKO INFORMAZIOA.**

Honako erakunde hauetan lor daiteke gai hauetan indarrean dauden betebeharrei eta xedapenei buruzko informazioa

4.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea, erakunde autonomoa.

4.2 Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-ogasunak, Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Ogasuna eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3 Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa.

4.4 Enpleguaren babesa, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza eta OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

4.5 Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE erakunde autonomoa.

4.6 Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

5. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURREKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA.

5.1 Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuaren klausula espezifikoen 3. klausulan agertzen da, eta urtealdietan eta loteka banatzen da, hala badagokio, klausula horretan ezarritakoaren arabera.

5.2 Kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan adierazitako aurrekontu-aplikazioan kontratutik eratorritako betebeharrei aurre egiteko behar besteko kreditua dago

5.3 Balio zenbatetsia kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan ezarritakoa da.

6. KONTRATUAREN PREZIOA ETA KONTRATUAREN GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA.

6.1 Prezioa zenbateko osoaren bidez zehazten den kontratua: kontratuaren prezioa zenbateko oso baten bidez zehazten denean, kontratuaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da, eta, inola ere ez, kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan ezarritako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe) baino handiagoa.

6.2 Prezioa unitate-prezioen bidez zehazten den kontratua: prestazioaren osagaiei, egikaritze-edo prestazio-unitateei nahiz denbora-unitateei dagozkien unitate-prezioen bidez zehazten denean prezioa:

a) Kontratuaren xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen denean: prezioa esleipendunak eskainitako unitate-prezioa unitate-kopuruarekin biderkatzearen emaitza izango da.

b) Kontratuaren xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen ez denean:

1) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.

2) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren berdina izan daiteke, edo, esleipendunak lizitazioko unitate-prezioak murriztea eskaini badu, kontratazio-organoak zehazten duen proportzioan murriztu ahal izango da.

Kasu horretan, aurrekontu horren benetako gastua botere adjudikatzailearen benetako beharren araberakoa izango da; beraz, botere adjudikatzailea ez da behartuta egongo unitate-kopuru jakin bat eskatzera, ez eta aurrekontua osorik gastatzera ere

6.3 Prestazioaren zati desberdinetarako prezioa zehazteko bi sistemak erabiltzen badira (zenbateko osoa eta unitate-prezioak), kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan eta baldintza orokor hauen 6.1 eta 6.2 klausuletan xedatutakoa aplikatuko da

6.4 Kontratuaren prezioa edo, hala badagokio, kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea esleipen-ebazpenean zehaztuko da, BEZa partida bereizi gisa adierazita eta, hala badagokio, urte anitzeko banaketa ere adierazita.

6.5 Kontratuaren prezioak barne hartzen ditu aplikagarriak diren zerga, tasa eta kanon

guztiak, bai eta kontratu-baldintzak betetzeak dakarren beste edozein gastu ere

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA.

Prezioak berrikusi ahal izango dira soilik kontratuaren klausula espezifikoen 5.4 klausulan hala aurreikusten denean, klausula horretan jasotako formula aplikatuz.

8. KONTRATUAREN INDARRALDIA: GAUZATZEKO EPEA EDO KONTRATUAREN IRAUPENA. LUZAPENA.

8.1 Traktu bakarreko kontratuak: kontratua gauzatzeko epea kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan adierazitako egunean hasiko da, eta honako hau izango da:

a) Eskaintzek epe osoa edo epe partzialak murriztea proposatu ezin dutenean: kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 klausulan ezarritakoa.

b) Eskaintzek epe osoa edo epe partzialak murriztea proposatu ahal dutenean: esleipendunak eskainitakoa.
Epe horiek SPKLren 195.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz baino ezingo dira luzatu.

8.2 Ondoz ondoko traktuko kontratuak: kontratuaren iraupena eta, hala badagokio, epe partzialak kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 eta 6.3 klausuletan adierazitakoak izango dira, hurrenez hurren. Kontratua kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan adierazitako egunean hasiko da

8.3 Ondoz ondoko traktuko kontratuen luzapenak: kontratuaren klausula espezifikoen 6.4 klausulan hala aurreikusten denean, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahal izango du. Luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, SPKLren 198.6 artikuluan aurreikusitako suntsiarazteko arrazoia gertatzen denean izan ezik. Kontratuaren luzapena kontratistarentzat nahitaezkoa izan dadin, kontratuaren arduradunak gutxienez bi (2) hilabete lehenago jakinarazi beharko dio, kontratua amaitu baino lehen

Luzapena kontratazio-organoaren ebazpen bidez erabakiko da, eta hori erabakitzeko prozedurak honako jarduketa hauek barne hartuko ditu:

a) Kontratua sustatzen duen organoaren txostena, kontratu-harremana luzatzeko beharra justifikatzen duten interes publikoko arrazoiak, bai eta prezioa eta epea ere, zehaztuz.
b) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldi-izapidea ematea.
c) Txosten juridikoa.
d) Kontrol ekonomiko eta fiskaleko aurretiazko fiskalizazio-txostena, salbuetsita ez dagoenean.
e) Kontratazio-organoaren ebazpena.

9. BERMEAK.

9.1 Behin-behineko bermea SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako moduetako edozeinen bidez eratu ahal izango da, eta SPKLren 106.3 artikuluan xedatutako moduan gordailutu beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta kontratua formalizatu ondoren berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautatutako lizitatzaileari, berriz, behin-behineko bermea SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokor hauen 23.4 klausulan xedatutakoaren arabera behin betiko bermea eratu ondoren itzuliko zaio.

9.2 Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko apartatuan aurreikusitako moduen bidez eratu ahal izango dira, bai eta prezioari atxikipena eginez ere, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 8.4 klausulan hala baimentzen bada.

Behin betiko bermea eta berme osagarria Diruzaintza Nagusian gordailutu beharko dira beti.

9.3 Aldi baterako enpresa-elkartea (aurrerantzean, **ABEE**) denean, behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEEko kide batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, betiere guztira eskatutako zenbatekoa estaltzen bada eta bermeak ABEEko kide guztiak batera eta modu solidarioan bermatzen baditu.

10. KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK.

Legazpiko Udalaren kontratugilearen profila: www.legazpi.eus

10.1 Legazpiko Udalaren kontratatzailearen profila ondorengo estekaren bidez ere satu ahalko da: http://www.contratacion.euskadi.eus

10.2 Kontratatzailearen profilean honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

1. Hala badagokio, aurretiazko informazioaren iragarkia.
2. Lizitazio-iragarkia.
3. Espedientea onartzeko ebazpena.
4. Administrazio klausula partikularren plegua (AKP), preskripzio tekniko partikularren plegua (PTP) eta dokumentazio osagarria
5. Kontratuaren xede zehatza, iraupena eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.
6. Kontratazioaren beharra, egokitasuna eta efizientzia justifikatzen dituen memoria, bai eta kontratuaren xedearekin duen lotura zuzena, argia eta proportzionala ere
7. Baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena.
8. Espedienteari hasiera emateko ebazpena, kontratazio-organoak sinatua.
9. Hala badagokio, merkatuaren aurretiazko kontsultak egin badira, egindako kontsultei buruzko behar bezala arrazoitutako txostena, SPKLren 115. artikuluan xedatutakoaren arabera.
10. EKAB betetzeko xml fitxategia.
11. Kontratazio-organoari laguntzen dioten kontratazio-mahaien osaera eta kideen karguak.
12. Balio-judizioaren mende dauden esleipen-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeko kideen izendapena, haien esku-hartzea kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulan aurreikusi denean. Horrez gain, kideen karguak ere adieraziko dira.
13. Kontratua argitaratzeko erabilitako bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak
14. Hala badagokio, kontratazio-organoaren ebazpena edo ebazpenak, AKPn eta/edo PTPn aldaketa esanguratsuak egiten dituztenak eta, epea luzatzearen ondorioz, eskaintzak aurkezteko azken egun berriak ezartzen dituztenak, SPKLren 122.1 eta 124. artikuluetan aurreikusitako jarduketen atzeraeragina erabakitzea eragotzi gabe.
15. Hala badagokio, kontratazio-organoaren ebazpena edo ebazpenak, AKP eta/edo PTP aldatzen dituztenak, akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak

zuzentzeko.

16. Baldintza-agiriei eta/edo gainerako dokumentazioari buruzko argibideak, erantzunak lotesleak izan zein ez. Erantzunak lotesleak badira, hori kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.3 klausulan adierazita egon beharko da.
17. Esleipen-prozeduran parte hartu duten lizitatzaileen kopurua eta identitatea.
18. Kontratazio-mahaiaren saio publikoen datak eta tokiak, eta, hala badagokio, haien aldaketak, bai eta saio horiek ikusi ahal izateko webgunea ere.
19. Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda eta, baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoiak.
20. Kontratazio-mahaiaren aktak.
21. Eskaintza bakoitzean balio-judizioaren mende dauden esleipen-irizpideen balorazio-txostena.
22. Hala badagokio, SPKLren 149.4 artikuluan aipatzen diren anormaltasun-presuntziopeko eskaintzei buruzko txostena edo txostena.
23. Eskaintzei esleitutako puntuazioak, baldin eta aktetan jasotzen ez badira edo aktak idatzi eta argitaratu arte.
24. Kontratua esleitzeko ebazpena.
25. Esleipendunaren identitatea.
26. Esleipenaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZa) barne.
27. Kontratuaren formalizazioaren iragarkia eta kontratu-dokumentua.
28. Hala badagokio, SPKLren 154.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua formalizatzeari buruzko datu guztiak ez argitaratzeko arrazoiak jasotzen dituen txostena.
29. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua ez esleitzea edo ez formalizatzea erabakitzen duena.
30. Kontratazio-organoaren ebazpena, esleipen-prozeduran atzera egitea erabakitzen duena.
31. Kontratazio-organoaren ebazpena, esleipen-prozedura hutsik deklaratzen duena.
32. Errekurtsoak aurkeztea eta, hala badagokio, horren ondoriozko esleipen-prozeduraren etetea.
33. Esleipen-prozedura baliogabetzat jotzen duen ebazpena.
34. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua luzatzea erabakitzen duena.
35. Kontratua aldatzeko iragarkia edo iragarkiak, kontratua aldatzea erabakitzen duen kontratazio-organoaren ebazpena, aldaketaren justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, hala badagokio, aldaketa onartu aurretik jasotako txosten guztiak.
36. Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua lagatzeko baimena ematen duena.
37. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duena.

10.3 Interesdunek kontsultak egin eta dokumentazio osagarria edo informazio gehigarria eskatu ahal izango dute kontratuaren klausula espezifikoen 19.4 eta 19.5 klausuletan adierazitako helbide elektronikoen bidez. Kontsultak eta eskaerak idatziz aurkeztu beharko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.1 klausulan ezarritako azken egunera arte, eta kontratazio-organoak horiei erantzun beharko die, beranduenez, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.2 klausulan ezarritako azken egunean.

II.- LIZITAZIOA.

11. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

11.1 Kontratazio-prozeduran parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute, eskatzen diren kaudimen-baldintzak betetzen badituzte edo, hala badagokio, dagokion sailkapena badute, eta, halaber, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan ezarritako gaitzeak badituzte, hala dagokionean (klausula horretan adierazten bada gaitzea eskaintzak aurkezteko azken egunerako eduki behar dela).

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituzten hainbat pertsonak aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) gisa parte hartu ahal izango dute, indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzetan

SPKLren 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek soilik parte hartu ahal izango dute, bai eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako eragile ekonomikoek ere; Europar Batasunekoak ez diren eragile ekonomikoek, berriz, SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

11.2 Pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 24.4 klausulan aldaerak aurkeztea onartzen bada. Era berean, ezin izango du ABEE baten barruan proposamenik aurkeztu, baldin eta banaka ere proposamena aurkeztu badu; ezta ABEE batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek urratzeak bere izenean aurkeztutako proposamen guztiak baztertzea ekarriko du.

11.3 Kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 eta 20.8 klausulek kontratua, hurrenez hurren, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erreserbatzen badiete, edo kontratua enplegu babestuko programen esparruan sartzen bada, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, edo, halaber, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera erakunde jakin batzuei erreserbatzen bazaie, legez ezarritako baldintzak betetzen dituztenek soilik parte hartu ahal izango dute. Horretarako, aplikagarriak izango dira Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia), Laneratze-enpresen Araubidea Arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legea eta SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria

11.4 Kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan eskatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta, hala badagokio, enpresa- edo lanbide-gaikuntzari buruzko betekizunak (salbu eta klausula horretan adierazten bada gaikuntza hori kontratua formalizatu aurretik eduki behar dela), bai eta kontratatzeko debekurik ez izatea ere, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta baldintza horiek kontratua formalizatu arte mantendu beharko dira.

Kontratazio-mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango die lizitatzaileei ziurtagiri eta egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko, prozeduraren garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean eta kontratua esleitu aurretik. Era berean, aurkeztutako ziurtagiriei eta agiriei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkie, edo agiri osagarriak aurkezteko errekerimendua egin.

11.5 Eskaintza aurkezte hutsak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela plegu honetako klausulak eta gainerako kontratu-agiriak, inolako erreserbarik edo salbuespenik egin gabe. Era berean, kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematen dio, kontratua esleitzeko prozeduraren edozein unetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo datu-base nazionaletan jasotako datuak kontsultatzeko, betiere azken horiek doan eskuragarri badaude. Eragile ekonomikoek ez dute aurkeztu beharko erregistro, zerrenda edo datu-base horietan dagoeneko jasota dauden datuak egiaztatzeko dokumentaziorik.

12. ESKAINTZAK AURKEZTEA.

12.1 Hizkuntza.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko da, edo hizkuntza horietako batera ofizialki itzulita.

12.2 Bitartekoak.

12.2.1 **Bitarteko** elektronikoak: salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan adierazten bada kontratua esleitzeko prozedura izapidetzeko bitartekoak ez direla elektronikoak, eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen Lizitazio Elektronikoa aplikazioaren bidez, helbide honetan: **www.contratacion.euskadi.eus**.

12.2.1.1 Erabilera-baldintzak

1. Administrazio-betekizunak:

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikorako baimendutako ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, honako ziurtagiri elektroniko hauek onartzen dira:

- Izenpe (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria)
- FNMT (Erakundea, Herritarra, Erakundearen ordezkaria)
- NAN elektronikoa (NANe)
- Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

b) Egoera hauetakoren batean egotea:

a) Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria edukitzea.

b) Aldi baterako gaikuntza-sisteman alta emanda egotea.

c) Bi eragile ekonomikok edo gehiagok aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) gisa aurkezten badute eskaintza, eta esleipendun gertatuz gero ABEE formalki eratzeko konpromisoa hartu badute, konpromiso hori aldi baterako gaikuntza-sisteman erregistratuta egon beharko da.

2. Betekizun teknikoak:

Baldintza teknikoei buruzko informazioa EUSKADIKO KONTRATAZIO PUBLIKOAREN PLATAFORMAn dago eskuragarri: www.contratacion.euskadi.eus

3. **Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak argitzeko edo gorabehera teknikoak jakinarazteko**: **945016298**. Helbide elektronikoa: **laguntzakpe@euskadi.eus**

12.2.1.2 **Aurkezteko modua**:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan adierazitako agiriak dagokien gutun-azalean aurkeztu beharko dira, klausula horretan ezarritakoaren arabera aplikazioan agertzen diren gutun-azaletan.

b) Honako luzapen hauek dituzten fitxategiak soilik irakurri eta izapidetu ahal izango direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg,
.bmp, .tiff, .zip, eta .7z

c) Birus informatikoek sistemaren funtzionamenduan izan dezaketen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da.

d) Eskaintza epe barruan aurkeztutzat joko da, baldin eta transmisioa epe horren barruan hasten bada eta behar bezala amaitzen bada.

12.2.2 Bitarteko ez elektronikoak edo paperekoak:

12.2.2.1 Aurkezteko modua:

a) Agiriak gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, eragile ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal bakoitzaren barruan, bertan jasotako agirien aurkibide zenbakiduna sartuko da, eta kanpoaldean honako datu hauek adieraziko dira:

1) Gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C edo dagokiona), kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan ezarritakoaren arabera.
2) Kontratuaren identifikazioa: espediente-zenbakia eta kontratuaren xedea.
3) Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, sozietatearen izena eta IFZ adieraziko dira; pertsona fisikoa bada, izen-abizenak eta NANaren edo baliokidea den dokumentuaren zenbakia.
4) Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NANaren edo baliokidea den dokumentuaren zenbakia.

b) Gutun-azalak lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan (eguna eta ordua) aurkeztuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.1 klausulan adierazitako erregistroan edo Posta bulegoetan, ondoren aipatutako bulegoetara bidal daitezen.

Dokumentazioa Posta bulego batean aurkezten bada, lizitatzaileak egun berean bidalketaren berri eman beharko du posta elektronikoz, kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulan adierazitako helbidera mezua bidalita.

Posta elektroniko bidez egindako jakinarazpena baliozkoa izan dadin, bidalketa eta harrera behar bezala egiaztatuta geratu beharko dira, baita haien data eta komunikazioaren eduki osoa ere; era berean, argi identifikatu beharko dira bidaltzailea eta hartzailea. Kasu horretan, jakinarazpenaren kopia inprimatua egingo da, eta espedienteari erantsiko zaio.

Bidalketaren jakinarazpenean kontratua eta lizitatzailea identifikatu beharko dira, baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulako a) letraren 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, Posta bulegoak emandako bidalketa-egiaztagiria erantsi beharko da. Lizitazio-iragarkian adierazitako datatik zenbatzen hasita hamar (10) egun natural igaro eta dokumentazioa jaso ez bada, ez da inola ere onartuko,

12.2.2.2 Dokumentazioa itzultzea.

Kontratua esleitu ez zaien lizitatzaileek, aurkeztutako dokumentazioa berreskuratu nahi badute, idatzizko eskabidea aurkeztu beharko diote kontratazio-mahaiko idazkariari. Eskabidean espediente-zenbakia eta dokumentazioa jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatu beharko dira. Ondoren, interesdunak administrazioaren bulegoetara joan beharko du dokumentazioa jasotzera.

Dokumentazioa entregatu aurretik, jasotzera doan pertsonaren nortasuna egiaztatuko da, NANa edo baliokidea den agiria aurkeztuta. Dokumentazioa kontratua formalizatu den egunetik zazpi (7) hilabete igaro ondoren itzuliko da, baldin eta epe horretan errekurtsorik aurkeztu ez bada. Epe hori igaro ondoren, dokumentazioa hilabeteko (1) epean jasotzen ez bada, suntsitu egingo da.

Jarduketa berak egingo dira, eta epe berak aplikatuko dira kotratazio-prozeduran atzera egiten denean edo kontratua egiteari uko egiten zaionean.

12.3 Konfidentzialtasuna.

Aurkeztutako dokumenturen bat konfidentzialtzat jotzen duten lizitatzaileek berariaz adierazi beharko dute hori – II.3 ERANSKINA betez, eta argi eta garbi adierazi beharko dute, gaininprimatuta edo orri-bazterrean, konfidentzialtzat izendatutako dokumentuan bertan. Izendapena horrela egiten ez bada, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.
II.3 ERANSKIN horretan, sekretu teknikoekin edo merkataritza-sekretuekin duten loturagatik konfidentzialtzat jotzen dituzten eskaintzaren informazioak eta alderdiak zehazteaz gain, lotura hori justifikatzen duten arrazoi zehatzak ere azaldu beharko dira.

Eskaintza ekonomikoa ez da inoiz konfidentzialtzat joko. Beraz, eskaintza ekonomikoa konfidentzialtzat izendatzen bada, izendapen hori ez-egindakotzat joko da.

Konfidentzialtasun-adierazpena ezin izango da lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazio osoari aplikatu, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio osoari ere. Halakorik gertatzen bada, edo adierazpena neurriz kanpokoa bada, kontratazio-organoak erabakiko du, arrazoituta, zer datu eta/edo dokumentu jo behar diren benetan konfidentzialtzat. Era berean jardungo du kontratazio-organoak, baldin eta adierazpenean ez badira behar bezala eta nahikoa arrazoitzen lizitatzaileak informazio jakin bat konfidentzialtzat jotzeko dituen arrazoiak.

Lizitatzaileak ez badu berariaz adierazten datu edo dokumenturen bat konfidentziala dela, ulertuko da aurkeztutako datu edo dokumentuetako batek ere ez duela izaera konfidentzialik. Hala ere, salbuespen gisa eta behar bezala arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jo ahal izango du halakotzat deklaratu ez den informazioa, enpresa-interes legitimoak babesteko.

Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren, ezingo dira konfidentzialtzat izendatu

aurkezteko unean halakotzat adierazi ez ziren datuak edo dokumentuak.

Esleipen-prozeduran hasierako eskaintzaren parte ez zen dokumentazioa aurkezten bada, dokumentazio berri horretan jasotako datuak edo dokumentuak konfidentzialtzat izendatu ahal izango dira, klausula honetako aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzetan.

12.4 Dokumentazioa egiaztatzea.

Botere adjudikatzaileak egiaztatu ahal izango du, bai adjudikazio-prozeduran zehar, bai kontratua esleitu eta formalizatu ondoren, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna. Datuak edo dokumentuak faltsuak badira, kontratua deuseztatzeko arrazoia izan daiteke. Arrazoi horrengatik kontratua deuseztatzen bada, operadore ekonomikoari egotz dakiokeen kontratu-ez-betetzat joko da, eta operadore ekonomikoak botere adjudikatzaileari eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio.

12.5 Jakinarazpenak eta komunikazioak.

12.5.1 Jakinarazi eta komunikatu beharreko jarduerak.

12.5.1.1 Jakinarazi egingo dira esleipen-erabakia eta SPKLren 44.2 artikuluko b) letran definitutako izapide-egintzak.

12.5.1.2 Komunikaziotzat hartuko dira argibide-eskaerak, akatsak edo omisioak zuzentzeko errekerimenduak, baldintza-agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 artikuluko b) letran jasota ez dauden gainerako izapide-egintzak

12.5.2 **Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea**.

Jakinarazpenak eta komunikazioak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren lizitazio elektronikoko sistemaren bidez egingo dira, eta/edo udalaren egoitza elektronikoaren bidez: https://legazpi.egoitzaelektronikoa.eus/info.1

Hala ere, ahozko komunikazioa (edo posta elektronikoa) erabili ahal izango da prozeduraren funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian eta harekin lotutako gainerako xedapenetan ezarritako baldintzetan.

Era berean, baldintza orokorren 12.5.1.2 klausulan definitutako komunikazioak ere bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, jakinarazpenak egiteko deskribatutako modu berean, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoetan beste bitarteko batzuk aurreikusi badira. Kasu horretan, lizitatzaileek argibide-eskaerei edo errekerimenduei posta elektronikoz baino ezingo diete erantzun, baldin eta aurkeztu beharreko argibideak, adierazpenak edo gainerako dokumentuak behar bezala sinatuta badaude eta lizitatzailea ordezkatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinadura elektroniko bidez sinatu baditu.

13. "A" GUTUN-AZALA: "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK".

13.1 Gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentuen zerrenda:

13.1.1 Operadore ekonomikoaren **Europako Kontratazio Agiri Bakarra** (EKAB), behar bezala beteta.

Horretarako, kontratatzailearen profilean argitaratutako esteka eta XML fitxategia erabiliko dira: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/home edo https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter? lang = da kontratatzailearen profilean argitaratua.

Era berean, baldintza orokorren **13.3 klausulan** aurreikusitako kasuetan dagozkien EKAB agiriak ere aurkeztu beharko dira.

13.1.2 **Behin-behineko bermea**, kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulak hala eskatzen badu.

13.1.3 **Baliabideak atxikitzeko konpromisoa**, II.2 ERANSKINEAN jasotako ereduaren arabera.

13.1.4 **Prestazioa gauzatzeaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa**, kontratuaren klausula espezifikoen 21.5 klausulak hala eskatzen badu.

13.1.5 Operadore ekonomikoak emandako informazioa **konfidentzialtzat izendatzeko** adierazpena, II.3 ERANSKINEAN jasotako ereduaren arabera.

13.1.6 **ABEE formalki eratzeko konpromisoa**, **II.4 ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera.

13.1.7 Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren arabera enpresa-talde bereko hainbat operadore ekonomikok eskaintza aurkezten badute, II.5 ERANSKINA bete beharko dute.

13.1.8 Kontratuaren klausula espezifikoen 1.2 klausularen arabera loteak badaude, II.6 ERANSKINA bete beharko da, eskaintza zein lotetarako aurkezten den adierazteko; eta, kontratuaren klausula espezifikoen 20.4 klausulak hainbat lotetako eskaintza integratzaileak aurkeztea ahalbidetzen badu, eskaintza integratzailea zein lote konbinaziotarako aurkezten den adierazteko.

13.1.9 Operadore ekonomikoak Europar Batasuneko estatu kideetakoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira eta kontratua Espainian gauzatuko bada, adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala badagokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adierazteko.

13.1.10 Europar Batasunekoak ez diren hainbat operadore ekonomikoren kasuan, SPKLren 68.1 artikuluan araututako txostena aurkeztu beharko dute. Halaber,

kontratua Espainian gauzatuko bada, adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala badagokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adierazteko.

13.1.11 **LEGAZPIKO** UDALAREN AURREKO AITORPEN OSAGARRIA, **II.7** ERANSKINEAN jasotako ereduaren arabera.

13.1.12 **INTERES-GATAZKARIK** EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA), **II.8** ERANSKINEAN jasotako ereduaren arabera.

13.1.13 Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "ez-elektronikoak" direla, baldintza orokorren 12.5.3 klausulan xedatutakoaren ondorioetarako, **II.8 ERANSKINA** bete beharko da.

13.2 Kaudimena metatzea ABEEen kasuan:

ABEEaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa nahiz kaudimen teknikoa edo profesionala zehazteko, hura osatzen duten operadore ekonomiko guztien ezaugarriak metatuko dira.

Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausularen arabera, bertan adierazitako kaudimenaren ordez 21.3 klausulan jasotako sailkapena baliatu badaiteke, eta ABEEan parte hartzen duten operadore ekonomiko guztiek sailkapena badute, zerbitzu-kontratista gisa duten banakako sailkapena metatuko da, kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapen orokorra lortu ahal izateko.

Hala ere, operadore ekonomiko guztiek sailkapenik ez badute, ABEEak eskatutako kaudimen-baldintzak betetzen dituela ulertuko da, kide guztien ezaugarriak metatu ondoren, honako baldintza hauetako bat betetzen badu:

- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan ezarritako kaudimen-baldintzak betetzea.
- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako taldea, azpitaldea eta kategoria betetzea.

13.3 Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) buruzko arau espezifikoak:

13.3.1 Kontratua lotetan banatuta badago eta hautaketa-irizpideak —hau da, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak— lotearen arabera aldatzen badira, lote bakoitzeko EKAB bana aurkeztu beharko da. Hala ere, kaudimena egiaztatzeko bitartekoak lote guztietan berberak badira eta aldatzen dena operadore ekonomikoak eskaintza aurkezten duen lote kopuruaren araberako betekizuna bada, EKAB bakarra beteko da lote guztietarako.

13.3.2 Azpikontratistak:

13.3.2.1 Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako a) letran hala ezartzen bada, operadore ekonomikoek EKABaren II. zatiko D atala bete beharko dute, honako datu hauek adierazita::

- Azpikontratatzea aurreikusita duten kontratuaren zatia edo zatiak, zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak barne, datu pertsonalen tratamendua badago.

  - Azpikontratatzeko aurreikusten duten zati bakoitzaren ehunekoa.

- Azpikontratistaren edo azpikontratisten izena edo, hala badagokio, haien enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei erreferentzia eginez zehaztua.

13.3.2.2 Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako b) letran hala ezartzen bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1 klausulan aipatutako datuez gain, azpikontratatuko den pertsonaren EKAB aurkeztu beharko dute (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta), edo, azpikontratatu beharreko pertsona bat baino gehiago badira, pertsona bakoitzeko EKAB bana, behar bezala sinatuta.

13.3.3 Kaudimena kanpoko baliabideen bidez osatzea: operadore ekonomikoak beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo baliabideetara jotzen badu, bere EKABarekin batera, baliatzen den erakunde bakoitzaren EKAB ere aurkeztu beharko du (erakunde edo operadore bakoitzeko bana), behar bezala sinatuta, II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta, eta, hala badagokio, IV. zatia ere bai.

13.3.4 ABEEa: hainbat operadore ekonomikok ABEE baten bidez parte hartu nahi badute, operadore ekonomiko bakoitzak EKAB bana aurkeztu beharko du, II.etik IV.era bitarteko zatietan eskatutako informazio guztiarekin.

13.3.5 Sailkapena: kaudimenaren ordez kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapena baliatu nahi bada, EKABaren II. zatiko A atalean dagozkion taldea(k), azpitaldea(k) eta kategoria(k) adierazi beharko dira, kontratazio-mahaiko kideek sailkapen hori jasotzen duen ziurtagiria ofizioz eskuratu ahal izan dezaten.

13.3.6 **Baztertzeko arrazoiak**: EKABaren III. zatiko D atalean xedatutakoaren ondorioetarako, baztertzeko arrazoi nazional hutsak honako hauek izango dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra):

- **Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen % 2ko erreserba-kuota ez betetzea, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera**.

- **Berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez betetzea, 50 langile baino gehiago dituzten operadore ekonomikoen kasuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. eta 46. artikuluak (martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren bidez eguneratua, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena).**

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA.

14. ESKAINTZAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA.

14.1 Kontratazio-mahaiak eskaintza hauek baztertzea erabakiko du:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan adierazitakoa ez den gutun-azal batean dokumenturen bat sartzen bada eta horrek eskaintzaren sekretua arriskuan jartzen badu.
b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo ezabaketak badituzte eta, horren ondorioz, haien edukia erabateko ziurtasunez ezagutzea ezinezkoa bada.
c) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez badatoz.
d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehieneko izaera duten unitateko prezioak gainditzen badituzte.
e) Baldintza-agiri honetan jasotako eskaintza ekonomikoaren eredua funtsean aldatzen badute.
f) Zenbatekoan akats nabarmena badute.
g) Lizitatzaileak berak aitortutako akats edo inkoherentziaren ondorioz bideraezinak badira
h) AKPn edo PTPn ezarritako baldintzak edo betekizunak betetzen ez badituzte.
i) Edukia irakurtzea edo eskuratzea eragozten duten birusak badituzte.
j) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak izapidetze-bitartekoak elektronikoak ez direla ezartzen badu, eskaintza lizitazio-iragarkian ezarritako epea amaitu ondoren aurkezten bada.
k) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak izapidetze-bitartekoak elektronikoak ez direla ezartzen badu, eskaintzaren bidalketa baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan adierazitako epea igaro ondoren iragartzen bada.
l) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak izapidetze-bitartekoak elektronikoak ez direla ezartzen badu, eskaintza kanpotik identifikatu gabeko gutun-azaletan (A, B eta C) aurkezten bada edo B eta C gutun-azalak itxita aurkezten ez badira.
m) 14.2.- Kontratazio-mahaiak, esleipen-proposamena egin aurretik eta edozein unetan, eskaintzak behar bezala ulertzeko beharrezkoak diren argibideak eskatu ahal izango ditu. Nolanahi ere, ez da onartuko lizitatzaileek, argibideak aurkeztearen bidez, eskaintzan adierazitako baldintzak edo terminoak aldatzea.

15. AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK AZTERTZEA ETA KALIFIKATZEA (A GUTUN-AZALA)

15.1 Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaia bildu egingo da A gutun-azalean epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta kalifikatzeko.

Aztertutako dokumentazioa zuzena bada eta aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko nahikoa bada, kontratazio-mahaiak lizitatzaile guztiak prozeduran onartzea erabakiko du. Aztertutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak antzemanez gero, kontratazio-mahaiak hiru (3) egun balioduneko epea emango die akatsa edo omisioa egin duten lizitatzaileei, antzemandako akatsa edo omisioa zuzentzeko behar den dokumentazioa aurkez dezaten. Emandako epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak zuzenketa-fase horretan aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta lizitatzaileak onartu edo baztertzea erabakiko du. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakitzen badu, erabakian baztertzeko arrazoiak jasoko dira.

15.2 Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

16. BALIO-JUDIZIOA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU BEHARREKO ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA (B GUTUN-AZALA).

16.1 Irekiera.

Kontratazio-mahaiak onartutako lizitatzaileek aurkeztutako **B gutun-azalak** irekiko ditu.

16.2 Ohiko kasua: kontratazio-mahaiak egindako ebaluazioa-

Kontratazio-mahaiak dokumentazioa zerbitzu sustatzaileari bidaltzea erabaki ahal izango du, eskaintzak PTPn ezarritako zehaztapenen aurkakoak ez direla egiaztatu, baloratu eta dagokion txostena egin dezan.

Zerbitzu sustatzaileak, ebaluazioa egitean, eskaintzaren bat baldintza-agirien aurkakoa dela edo beste gutun-azal batean aurkeztu behar ziren dokumentuak edo datuak jasotzen dituela egiaztatzen badu, inguruabar hori txostenean jasoko du. Txostena egin ondoren, kontratazio-mahaiari bidaliko dio, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

16.3 Salbuespenezko kasua: aditu-batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak ebaluatzea.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.10 klausulak eskaintzaren zati hori ebaluatzeko aditu-batzorde bat edo organismo tekniko espezializatu bat izendatzen badu, kontratazio-mahaiak dokumentazioa izendatutako organoari bidaliko dio, ebaluazioa egin eta dagokion txostena eman dezan. Txostena egin ondoren, organo horrek kontratazio-mahaiari bidaliko dio, eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

17. FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA (C GUTUN-AZALA)

17.1 GUTUN-AZALAK IREKI AURREKO JARDUKETAK.

17.1.1 Balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak erabiltzen direnean.

Baldintza orokorren 16.2 klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, C gutun-azalak ireki aurretik, kontratazio-mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu:

Saioaren zati publikoa hasi aurretik

- Zerbitzu sustatzaileak egindako balorazio-txostena aztertuko du, eta eskaintzak baloratu eta dagozkien puntuazioak esleituko ditu.
- Baldintza orokorren 14.1 klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintza bat edo gehiago baztertzea erabakiko du.

Saioaren zati publikoa hasi ondoren:

- Saioan bertaratutakoei eskaintza bakoitzari esleitutako puntuazioak jakinaraziko dizkie, eta, hala badagokio, baztertutako eskaintzen eta baztertzeko arrazoien berri emango du.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan aurreikusitako salbuespenezko kasuan, gutun-azalak ireki aurretik, kontratazio-mahaiak aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak esleitutako puntuazioak jakinaraziko ditu, eta, hala badagokio, baztertutako eskaintzen eta baztertzeko arrazoien berri emango du.

17.1.2 Balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak erabiltzen ez direnean.

17.2 GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA.

Aurreko jarduketak egin ondoren, kontratazio-mahaiak, saio publikoan, baztertu ez diren eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaileen C gutun-azalak irekiko ditu, eta eskaintzak irakurriko ditu.

18. ESKAINTZAK EBALUATZEA.

Jarraian, kontratazio-mahaiak beharrezkoak diren saioetan honako jarduketa hauek egingo ditu:

18.1 Eskaintzak baldintza orokorren 14.1 klausulan ezarritako baztertzeko arrazoietako batean dauden egiaztatuko du, eta, hala badagokio, dagokion baztertze-erabakia hartuko du.

18.2 Egiaztatuko du onartutako eskaintzek, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 22.3 klausulan ezarritako mugak gainditzen dituzten ala ez, eta eskaintzaren batek muga horiek gainditzen baditu, SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusitako jarduketak egingo ditu. Kontratazio-mahaiak entzunaldi-epea zehaztuko du, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta. Epe hori ez da hiru (3) egun baliodunetik beherakoa izango, ezta hamar (10) egun baliodunetik gorakoa ere

Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin direla irizten dien eskaintzak onartu edo baztertzea.

18.3 Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu, eta eskaintza onena zein den zehaztuko du, eskaintza bakoitzak esleipen-irizpide guztietan lortutako puntuak batuta.

Kalkulua egiteko, ez ditu kontuan hartuko baztertzea proposatu duen eskaintzak.

Bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera lortu badute, kontratazio-mahaiak errekerimendua egingo die eskaintza horiek aurkeztu dituzten lizitatzaileei, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean aurkez ditzaten, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan ezarritako berdinketa hausteko irizpide espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak. Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan berdinketa hausteko irizpide espezifikorik ezarri ez bada, baldintza orokorren 19. klausulan jasotako berdinketa hausteko irizpideak aplikatuko dira

19. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan berdinketa hausteko irizpide espezifikorik aurreikusten ez bada, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintzaren artean berdinketa gertatzen bada, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den unean dagoen egoerari erreferentzia eginez, honako irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen ehunekorik handiena izatea. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehentasuna izango du desgaitasuna duten langile finkoen kopururik handiena duen lizitatzaileak edo, hala badagokio, gizarteratze-prozesuan dauden langileen kopururik handiena duenak.

b) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehunekorik txikiena izatea.

c) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan emakume langileen ehunekorik handiena izatea.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatu ondoren ere berdinketa hautsi ez bada.

Irizpide horiek aplikatzeko, lizitatzaileek, hala badagokio, lan-kontratuen, Gizarte Segurantzako kotizazio-agirien edo zuzenbidean onartutako beste edozein frogabideren bidez egiaztatu beharko dituzte aurreko irizpide soziala.

IV.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA.

---

20. ESLEIPEN-PROPOSAMENA.

Kontratazio-mahaiak puntuazioaren arabera sailkatuko ditu eskaintzak, handienetik txikienera, eta sailkapen horren arabera dagokion esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren proposamena onartuko du.

21. ESLEIPENA EGIN AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA DATU EGIAZTAGARRIAK.

<u>Aurkeztu beharreko dokumentazioa</u>:

21.1 Kontratazio-organoak esleipen-proposamena onartu ondoren, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua egingo zaio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamar (10) egun balioduneko epean honako dokumentu hauek aurkez ditzan:

1. Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko:

1.1 Pertsona juridiko espainiarrek jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute eraketa-

eskritura edo -agiriaren, estatutuen edo eraketa-aktaren bidez. Agiri horietan haien jarduera arautzen duten arauak jaso beharko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko dute, pertsona juridiko motaren arabera.

1.2 Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako lizitatzaile ez-espainiarrek jarduteko gaitasuna SPKLren 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute

1.3 Gainerako lizitatzaile atzerritarrek jarduteko gaitasuna SPKLren 84.3 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute.

2. Ahalordetzea: eskaintza sinatzen duen pertsona bere izenean jarduten ez bada edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, sinatzen duen pertsonak horretarako ahalorde askietsia aurkeztu beharko du. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde hori dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko da, baldin eta aplikatzekoa den araudiaren arabera inskripzio hori nahitaezkoa bada.

3. Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoen 21.1 klausularen arabera gutxieneko kaudimen-baldintzak eskatzen badira, lizitatzaileak kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du baldintza horiek egiaztatzeko, salbu eta kaudimena sailkapenaren bidez ordeztu bada.

4. Enpresa- edo lanbide-gaikuntza: kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan adierazten bada eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean gaitze hori eduki behar dela.

5. Baliabide materialen eta giza baliabideen erabilgarritasuna: lizitatzaileak kontratua gauzatzera atxikitzeko konpromisoa hartu dituen baliabideei dagokienez, kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

6. Beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzea**:** lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena edo baliabideak baliatu baditu, V.1 ERANSKINEAN jasotako *«Beste erakunde batzuen kaudimenaren eta baliabideen eskuragarritasuna kontratuaren indarraldi osoan»* aurkeztu beharko du.

7. Kontratatzeko debekurik ez izatea: SPKLren 85. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (V.2 ERANSKINA).

8. Bermea: behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da (salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 8.2 klausulan halakorik eskatzen ez bada), eta, hala badagokio, baita berme osagarria ere.

9. Publizitate-gastuak: kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala aurreikusten bada, dagozkion publizitate-gastuak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.

10. Kontratu erreserbatuak: kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 edo 20.8

klausulen arabera kontratua erreserbatua bada, lizitatzaileak dokumentu bidez egiaztatu beharko du erreserba horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituela.

11. Aurretik kopia sinple gisa aurkeztutako agirien artean, hala badagokio, eskatzen diren jatorrizko agiriak.

Ziurtagiriak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez eman ahal izango dira.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan aipatutako erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan adierazitako ondorioak izango ditu, erregistro, zerrenda eta datu-base horietan jasotako datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere horietara doan sartzeko baldintza betetzen bada.

21.2 Lizitatzaileak ez badu errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen, eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin-behineko bermearen kontura gauzatuko da, halakorik eratu bada, SPKLren 71.2 artikuluko a) letran xedatutakoa eragotzi gabe.

- Dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeraren arabera.

Egiaztatu beharreko datuak

Legazpiko Udalak, eskuragarri dituen datuen bitartekaritza-sistemen bidez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.

22. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.

22.1 Kontratazio-organoak kontratua esleituko du, esleipen-proposamena jaso duen lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baliodunen barruan.

22.2 Esleipen-ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta harekin batera bidaliko dira, hala badagokio, balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideen bidez ebaluatutako eskaintzaren zatien balorazio-txostena eta ezohiko baxuak diren eskaintzen justifikazioaren azterketa-txostena. Txosten horiek kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

22.3 SPKLren 44. artikuluan araututako errekurtso berezi baten ebazpenaren ondorioz kontratazio-organoak kontratua beste lizitatzaile bati esleitu behar badio, lizitatzaile horri hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio baldintza orokorren 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkez dezan.

22.4 Nolanahi ere, esleipenaren jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da.

23. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

23.1 Kontratua SPKLren 153. artikuluan xedatutako baldintzetan eta epeetan formalizatuko da, aurretiaz honako agiri hauek aurkeztuta:

a) ABEE eratzeko eskritura publikoa, esleipendunak aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkeztu badira.

b) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan berariaz eskatutako aseguru-kontratuen polizak. Poliza horietan aseguratu gisa agertu beharko dute kontratistak, azpikontratistak eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.1 klausulan adierazitako botere esleitzaileak. Horrez gain, dagozkien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

c) Enpresa- edo lanbide-gaikuntza, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan hala ezarrita badago eta klausula horretan bertan adierazi bada gaikuntza hori kontratua formalizatu aurretik eduki behar dela.

d) Zerbitzuak datu pertsonalen tratamendua badakar, enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, adierazpen bat aurkeztu beharko du, zerbitzariak non kokatuko diren eta haiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adieraziz.

Enpresa esleipendunak kontratuaren indarraldian zehar aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenean emandako informazioan gertatzen den edozein aldaketa jakinarazi beharko du.

e) Zerbitzuak datu pertsonalen tratamendua badakar, dagokion datu pertsonalen tratamendu-kontratua formalizatuko da Udalaren, fitxategiaren arduradun gisa, eta kontratistaren, tratamenduaren arduradun gisa, artean, Datu Pertsonalen Tratamenduari buruzko Eranskinean ezarritakoaren arabera.

f) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 26.4 klausulan adierazitako dokumentazioa.

23.2.- Kontratuaren formalizazioa eta dagokion kontratua kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, kontratua perfekzionatu eta gehienez ere hamabost (15) eguneko epean. Era berean, kontratua erregulazio harmonizatuaren mende badago, formalizazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko bidaliko da, formalizaziotik gehienez ere hamar (10) eguneko epean.

23.3 Kontratua legez ezarritako epeetan formalizatu ezin bada esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontura gauzatuko da, halakorik eratu bada, SPKLren 71.2 artikuluko b) letran xedatutakoa eragotzi gabe.

- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeraren arabera, aurretiaz baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako

dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin ondoren.

23.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan behin-behineko bermea eskatzen bada, kontratua formalizatu ondoren berme hori automatikoki azkenduko da, eta berehala itzuliko zaie kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei. Itzulketa egiteko, bermea aurkezteko erabilitako prozedura bera erabiliko da.

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA.

24. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.2 klausulan adierazitako organoak kontratuaren jarraipen eta exekuzio arruntean dituen eskumenak gorabehera, kontratuaren arduradunari dagokio lanen gainbegiratzea eta ikuskapena egitea. Horretarako, honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Baldintza orokorren 25.2 klausulan aurreikusitako lan-programa onartzea proposatzea kontratazio-organoari.

b) Prestazioa behar bezala gauzatzen dela bermatzeko beharrezko jarraibideak idatziz ematea.

c) Baldintza orokorren 32.1 klausulan aurreikusitako zerbitzu-ziurtagiriak onartzea.

d) Baldintza orokorren 32.2 klausulan aurreikusitako eginkizunak betetzea, prestazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeari eta haren harrerari dagokienez.

e) Kontratistak kontratuaren ondorioz bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela gainbegiratzea eta egiaztatzea; balizko ez-betetzeen berri ematea kontratazio-organoari eta, hala badagokio, kontratua suntsiaraztea edo zigorrak ezartzea proposatzea.

f) Baldintza orokorren 26. klausulan xedatutakoaren arabera kontratua gauzatzera atxikitako giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.

g) Beharrezkotzat jotzen diren kontratu-aldaketak proposatzea.

h) Kontratistari kontratua gauzatzera atxikitako langileen lan-baldintzei buruzko informazioa eskatzea.

i) Kontratistari dokumentazio osagarria eskatzea, kontratuak irauten duen bitartean hirugarren erakundeen kaudimena eta/edo baliabideak eskuragarri dituela egiaztatzeko, baldin eta adjudikazio-prozeduran parte hartzeko kaudimen edo baliabide horietan oinarritu bada.

j) Egiaztatzea kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei ordaintzeko betebeharra betetzen duela, baldintza orokorren 28.3.2 klausulan xedatutakoaren arabera.

k) Kontratua gauzatzean atzerapena gertatzen bada, txostena egitea, atzerapena kontratistari egotz dakiokeen ala ez zehazteko.

l) Baldintza orokorren 35. klausulan aurreikusitako txostenak egitea, ABEEko kideen lagapenari eta aldaketari dagokienez..

m) Kontratistari eskatzea, akta bidez, kontratua amaitutakoan datu pertsonalak zituzten euskarri guztiak itzuli dituela edo fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela egiazta dezan

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.3 klausulan izendatutako kontratuaren arduraduna aldatzen bada, aldaketa hori berehala eta idatziz jakinaraziko zaio kontratistari.

25. ZERBITZUAK BETEARAZTEA.

25.1 Kontratu-agiriei eta jarraibideei men egitea

Zerbitzuak kontratu-agirietan, kontratistaren eskaintzan eta kontratuaren arduradunak kontratua gauzatzean edo interpretatzean idatziz emandako jarraibideetan xedatutakoari zorrotz jarraituz beteko dira.

25.2 Lan-programa.

Kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala eskatzen bada, kontratistak lan-programa aurkeztu beharko dio kontratuaren arduradunari kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita zazpi (7) egun balioduneko epean. Programa horrek Preskripzio Teknikoen Pleguan (PTP) dagokion klausulan zehaztutako datuak eta informazioa jaso beharko ditu.

Lan-programa AKPn eta, hala badagokio, kontratistaren eskaintzak ezarritako epeetara egokituko da, eta kontratazio-organoak hamabost (15) egun balioduneko epean onartu beharko du.

25.3 Baimenak.

Prestazioa gauzatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak —publikoak nahiz pribatuak— lortzea, bai eta horien ondoriozko gastuak ordaintzea ere, kontratistaren ardura izango da.

25.4 Aseguruak.

Kontratistak nahitaezko aseguru guztiak kontratatu beharko ditu, eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan ezarritako aseguruak indarrean mantendu beharko ditu kontratuak irauten duen bitartean.

25.5 Lankidetza.

Kontratistak inolako kostu gehigarririk gabe, kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren laguntza eta zerbitzu profesional guztiak eskaini beharko dizkio botere esleitzaileari; besteak beste, azalpen-bileretara joatea, herritarrei informazioa ematea eta kontratuaren arduradunari prestazioa gauzatzen den lekuetara sarbide librea bermatzea.

25.6 Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista izango da egiten dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen erantzulea, bai eta kontratua gauzatzean egindako omisio, akats, metodo desegoki edo ondorio okerren ondorioz botere esleitzaileari edo hirugarrenei eragindako kalteen erantzule ere.

Era berean, kontratistak hirugarrenei kontratua gauzatzeak eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkie, SPKLren 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezi.

25.7 Obra-proiektuak egiteko kontratuetako kalte-ordaina.

Aholkularitza-kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo omisioen ondorioz, proiektuan aurreikusitako obraren exekuzio-aurrekontua benetako kostuarekiko % 20tik gorako desbideratzea badago —gorantz zein beherantz—, kontratistak botere esleitzaileari dagokion kalte-ordaina eman beharko dio, SPKLren 315. artikuluan ezarritako baremoaren arabera.

26. KONTRATUA GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK.

26.1 Baliabideak atxikitzeko konpromisoa.

Kontratistak kontratua gauzatzera atxiki beharko ditu, hala badagokio, baliabideak atxikitzeko konpromisoan (II.2 ERANSKINA) adierazitako baliabideak, bai eta kontratua kontratu-agirietan ezarritako baldintza eta epeetan behar bezala betetzeko beharrezkoak diren gainerako baliabideak ere.

Adierazitako baliabide materialak ordeztu ahal izateko, kontratuaren arduradunari aldez aurretik jakinarazi beharko zaio. Horrek, aurkeztutako egiaztagirien bidez, proposatutako baliabideak eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko du, eta zazpi (7) egun balioduneko epean baimena emango du. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu proposatutako baliabideak ez dituela baldintzak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiaren arrazoiak azalduz. Kasu horretan, kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Adierazitako giza baliabideak klausula honetan ezarritako prozeduraren arabera baino ezin izango dira ordezkatu. Nolanahi ere, ordezkapenaren ondorioz lan-ingurunera egokitzeko sor daitezkeen zailtasunak konpontzeko, ordeztutako pertsonaren eta lanpostuan hasiko denaren arteko gainjarritako lanaldia egingo da behar den denboran, kontratazio-organoarentzat kostu gehigarririk sortu gabe.

Ordezkapena honako prozedura eta baldintza hauen arabera egingo da:

a) Kontratistak eskatutako ordezkapena: arrazoi justifikatuengatik ordezkapenen bat egin behar badu, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratuaren arduradunari, gutxienez hamabost (15) egun baliodun lehenago, aldi baterako lanerako ezintasunaren edo heriotzaren kasuan izan ezik. Jakinarazpenak honako hauek jaso beharko ditu:

- Ordezkatu nahi den pertsonaren identifikazioa eta ordezkapenaren arrazoia.
- Baldintzak betetzen dituen hautagai berri baten proposamena, hori egiaztatzen duten agiriekin batera.

Kontratuaren arduradunak zazpi (7) egun balioduneko epean baimenduko du ordezkapena edo, hautagaiak baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiaren arrazoiak adieraziz. Kasu horretan, kontratistak beste hautagai bat proposatu ahal izango du.

b) Botere esleitzaileak eskatutako ordezkapena: botere esleitzaileak kontratua behar bezala gauzatzeko ordezkapenen bat beharrezkotzat jotzen badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia arrazoituz. Kontratistak hamabost (15) egun balioduneko epean gutxienez baldintzak betetzen dituen hautagai bat proposatu beharko du, hori egiaztatzen duten agiriekin batera

Kontratuaren arduradunak zazpi (7) egun balioduneko epean baimenduko du ordezkapena edo, hautagaiak ez dituela baldintzak betetzen iritziz gero, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakiaren arrazoiak azalduz. Kasu horretan, kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan ezarritako baldintzen arabera.

Arau berberak aplikatuko dira kaudimena egiaztatzeko erabilitako baliabideak ordezkatzeko, bai eta kontratistak lizitazio-fasean beste erakunde batzuen kaudimena edo **baliabideak** baliatu dituenean ere.

26.2.- Langileei buruzko arau espezifikoak.

Zerbitzua ematera atxikitako langileak kontratistaren mende egongo dira soilik. Kontratistak izango ditu enplegatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak, eta, ondorioz, honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) Kontratuaren gauzatzera atxikiko diren langileak hautatzea, hargatik eragotzi gabe botere esleitzaileak egiaztatu ahal izatea pleguetan ezarritako lanbide-kualifikazioko betekizunak betetzen direla, halakorik ezarri bada.

b) Langileen egonkortasuna sustatzea, eta lantaldearen osaeran gertatzen diren aldaketak salbuespenezkoak eta behar bezala justifikatuak izatea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez kaltetzeko, hori eskatzea justifikatzen duten arrazoiak daudenean. Horren berri uneoro emango zaio botere esleitzaileari.

c) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen gainean enplegatzaileari dagokion zuzendaritza-ahalmena benetan, eraginkortasunez eta etengabe baliatzea. Bereziki, kontratistari dagozkio honako hauek: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; langileen absentzien kasuan ordezkapenak antolatzea; Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta, hala dagokionean, prestazioak ordaintzea barne; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak betetzea; diziplina-ahala baliatzea, bai eta enplegatzailearen eta langileen arteko lan-harremanetik eratorritako gainerako eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

d) Bermatzea kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren jarduera pleguetan kontratuaren xedetzat zehaztutako eginkizunen barruan soilik garatzen dutela.

e) Gutxienez koordinatzaile bat izendatzea, kontratistaren plantillakoa izango dena, eta honako eginkizun hauek beteko dituena:

- Kontratistaren ordezkari eta solaskide izatea botere esleitzailearen aurrean, kontratistaren, kontratura atxikitako langileen eta botere esleitzailearen arteko komunikazioa bideratzeko, kontratuaren exekuziotik eratorritako gai guztietan.

- Lana langileen artean banatzea eta kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko agindu eta jarraibideak ematea.

- Langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea eta lanpostura joaten direla kontrolatzea.

- Oporren antolaketa koordinatzea.

f) Botere esleitzaileari jakinaraztea kontratua gauzatzera atxikitako lantaldearen osaeran gertatzen diren aldaketak, aldi baterakoak nahiz iraunkorrak

26.3.- Lan-baldintzei buruzko informazioa.

Kontratistak hurrengo apartatuetan adierazitako datuak eta agiriak eman beharko dizkio kontratuaren arduradunari, kasu bakoitzean ezarritako epe eta baldintzen arabera:

a) Kontratua betearazteari atxikitako langile bakoitzaren lan-baldintzei buruzko datuak: posta elektronikoz aurkeztuko dira, VI.3 ERANSKINEAN jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia behar bezala beteta, dagokion errekerimendua jaso eta zazpi (7) egun balioduneko epean.

b) Kontratuaren arduradunak eskatzen dituen agiriak, emandako datuen egiazkotasuna eta kontratistak, enplegatzaile gisa, bere gain hartutako lan-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko: posta elektronikoz aurkeztuko dira, eskaneatutako kopia bidez, dagokion errekerimendua jaso eta hamar (10) egun balioduneko epean.

Kontratuaren arduradunak kontratuaren indarraldiko edozein unetan eskatu ahal izango du informazio hori, eta bereziki, SPKLren 130. artikuluan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

26.4.- Kontratua gauzatzeko lekua.

Prestazio botere adjudikatzaile kontratatzailearenaz bestelako bulego edo instalazioetan emango da. Hori ezinezkoa bada, plantillak nahastea saihesteko, kontratistaren langileek, inguruabar zehatzek ahalbidetzen ez dutenean izan ezik, ez dituzte espazioak eta lantokiak partekatuko botere adjudikatzailearen zerbitzuko langileekin, eta, gainera, dagozkion zeinu bereizgarrien bidez identifikatuko dira langileak eta kontratistaren bitartekoak, hala nola uniformeak edo errotulazioak.

26.5.- Kaltegabetasun-araua.

Kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioz botere adjudikatzailea kontratistarekin batera modu solidarioan zenbateko jakin batzuk ordaintzera kondenatzen bada, botere adjudikatzaileak kontratistari jasanaraziko dio ordaindutako zenbatekoa, dagozkion legezko ekintzen bidez.

26.6.- Langileen subrogazioa.

Lan-araudiaren arabera langileen subrogazioa egin behar denean, kontratua ordura arte zerbitzua ematen ari zen kontratista ez den beste operadore ekonomiko bati esleitzen bazaio, aurreko kontratistak subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten erantzule izango da, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioen erantzule ere, kontratua suntsiarazi den kasuan ere. Betebehar hori ez dagokio inola ere kontratista berriari.

Kasu horretan, botere adjudikatzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion zenbatekoak atxikiko ditu soldatak

ordainduko direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldatak ordaindu direla egiaztatu arte.

27. INGURUMEN-, GIZARTE- EDO LAN-ARLOETAKO BETEBEHARRAK

27.1 Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebehar orokorrez gain, enpresa kontratistak bete beharko ditu Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ezarritako ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak, eta, bereziki, SPKLren V. eranskinean jasotakoak.

Zehazki, kontratistak bete beharko du desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua.

Halaber, kontratistak honako hauek betetzeko betebeharra du: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako dena, eta 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa.

Gardentasun-betebeharrei dagokienez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuaren adjudikaziodunak Administrazioari eman beharko dio, aldez aurretik errekerimendua eginda, lege horretan eta udal-eremuan ematen diren arauetan aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

Lan-, Gizarte Segurantza- eta laneko segurtasun eta osasun-arloetan, kontratistak bete beharko ditu Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua, eta kontratua gauzatzen den bitartean indarrean jartzen diren gainerako arauak.

Horrenbestez, kontratistak langileen bizitza, osotasun fisikoa eta osasuna arriskuan jar ditzaketen egoerak prebenitzeko beharrezkoak diren segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartu beharko ditu.

Era berean, lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete beharko ditu, eta, kontratua gauzatzen hasi aurretik, honako hauek egiaztatu beharko ditu:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentzio-antolaketa mota hartu izana.

b) Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratuta izatea, lan-arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera (urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartua. Eskakizun hori betetzat joko da OHSAS 18001 arauan, LANEren Segurtasun eta Osasun Kudeaketa Sistemei buruzko gidalerroetan edo antzeko beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema ezarrita badu, betiere sistema horrek eskatutako neurriak ebaluatu eta betetzen direla egiaztatzen badu. Betebehar hori beste edozein frogabide egokiren bidez ere egiaztatu ahal izango da.

c) Kontratatutako jarduerari dagokion arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren

plangintza eginda izatea.

d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluan aurreikusitako kontsulta- eta parte-hartze-prozesua nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura izatea edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak edukitzea.

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen direla kontrolatzeko prozedura izatea, eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan edo aplikatu beharreko araudian aurreikusitako diziplina-neurriak hartzea, langile guztien segurtasuna bermatzeko.

f) Arriskuen ebaluazioaren arabera prebentzio-baliabideen presentzia eskatzen duten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda edukitzea.

g) Kontratuaren gauzatzen parte hartzen duten langile guztiek —enpresakoek zein kanpokoek— lanean hasi aurretik beren jarduerari dagozkion arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso izana, bai eta jarduera horri dagozkion arriskuei buruzko beharrezko prestakuntza ere (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren arabera), lan-arriskuen prebentzio-planaren prozedurarekin bat etorriz. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeko behar den prestakuntza jaso dutela.

h) Hala badagokio, norbera babesteko ekipamenduak entregatu direla egiaztatzen duten agiriak edukitzea.

i) Langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta, jantoki- eta atseden-gune egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak jartzea langileen eskura..

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atsedenaldiak errespetatu daitezen eta aparteko orduak salbuespenez baino ez daitezen egin.

27.2 Langileek kontratua gauzatzean istripuren bat edo edozein motatako kalteren bat jasaten badute, kontratistak indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko du, bere erantzukizunpean, eta erantzukizun hori ez zaio inolaz ere botere adjudikatzaileari egotziko.

27.3 Kontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko apartatuetan ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak eskatu beharko dizkie azpikontratistei, eta botere adjudikatzaileari aurkeztu beharko dizkio.

28. KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Baldintza berezi hauek, bai eta kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasotakoak ere, kontratistak nahiz azpikontratistek bete beharko dituzte.

28.1 Hizkuntza-baldintzak.

28.1.1 Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, oro har, euskara erabiliko da. Kontratua betearaztearen ondorioetarako, «oro har euskara erabiltzea» honela ulertuko da: kontratua betearazteko eginkizunak dituzten eta euskaraz dakiten langileek botere adjudikatzailearekin harremanetan jartzen direnean, hasieran euskaraz jardutea.

Era berean, botere adjudikatzailea euskaraz zuzentzen bazaie kontratua betearazteari atxikitako eta euskaraz behar besteko gaitasunik ez duten langileei, kontratua gauzatzen duen enpresak berehala jarri beharko ditu beharrezko bitartekoak edo euskaraz jarduteko gaitasuna duten langileak, kontratua betearaztearen ondoriozko harremanak euskaraz garatu ahal izan daitezen.

28.1.2 Kontratuaren xedea betearazteak herritarrei zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin nahiz herritarrekin oro har harremanak izatea badakar, enpresa kontratistaren eta erabiltzaileen edo kontratua betearaztean harremana izan behar duten pertsonen arteko ahozko nahiz idatzizko komunikazioan erabiltzaileak edo hirugarrenak kasuan kasu aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da. Aukerarik berariaz adierazi ez bada, kontratua gauzatzeaz arduratzen den kontratistak pertsona fisiko eta juridikoei egiten dizkien jakinarazpen eta komunikazio guztiak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, fakturak eta merkataritza-trafikoko gainerako agiriak barne. Horrek ez du eragotziko herritarrek edozein unetan hizkuntza aukeratzeko eskubidea baliatu eta bi hizkuntza ofizialetako bakarra erabiltzea eskatu ahal izatea.

Nolanahi ere, kontratistak behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu zerbitzuaren hartzaileei arreta, informazioa eta komunikazioa euskaraz ere eman ahal izateko.

Legeak edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren klausulek hala agintzen dutelako, kontratu amaituari atxikitako langileen lan-harremanetan adjudikaziodun berriak subrogatu behar badu, eta langile horiek ez badute kontratu-agirietan ezarritako hizkuntza-eskakizunak betetzeko behar adinako gaitasunik, kontratista berriak subrogatutako langileen ordezkapenak kontratu horretan eskatzen den euskararen ezagutza eta erabilera betetzen dituzten pertsonekin egin beharko ditu.

28.2 Gizarte-arloko edo enpleguari lotutako baldintzak:

28.2.1 Lan-, Gizarte Segurantza- eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea.

28.2.2 Baldintza orokorren 26.3 klausulan xedatutakoa betetzea.

28.2.3 Kontratua betearazten den bitartean, langile bakoitzari bere lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata ordaintzea; ordaindutako soldata ezingo da, inola ere, hitzarmenak ezarritakoa baino txikiagoa izan.

28.2.4 Kontratua betearaztearen ondorioz sortutako datu guztien gardentasun instituzionala bermatzea.

28.3 Azpikontratistak eta hornitzaileak:

28.3.1 Kontratistak kontratuaren zati baten betearazpena hirugarren bati azpikontratatzen badio, botere adjudikatzailearen aurrean kontratua osorik eta baldintza-agiri honetan nahiz kontratuan ezarritako baldintzen arabera betearaztearen erantzukizun osoa bere gain hartuko du. Erantzukizun horren barruan sartzen dira, besteak beste, SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak betetzea, bai eta SPKLren 202. artikuluaren 1. apartatuaren azken paragrafoan aurreikusitako betebeharra ere, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen Estatuko eta Europar Batasuneko araudia betetzeari dagokiona.

28.3.2 Ordainketak egiaztatzea:

- Kontratuaren arduradunak hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda xehatua bidaltzea, haien parte-hartzea formalizatzen den unean, bai eta horietako bakoitzarekin adostutako azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzenean lotuta dauden neurrian.

- Kontratuaren arduradunak hala eskatzen duenean, aurreko apartatuan aipatutako azpikontratista eta hornitzaileei legez ezarritako epeetan ordaindu zaiela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea, prestazioa amaitu ondoren, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen horretan, xedatutako ordainketa-epeak errespetatuz.

Administrazio Publikoarentzat, egiaztapen-jarduketak nahitaezkoak dira.

28.4 Datuak babesteko araudiaren mende egotea.

Sektore publikoko erakundeek kontratistari datuak lagatzea dakarten kontratuetan, kontratistak datu pertsonalen babesaren arloko Estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharko du.

Betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra da, SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuko f) letran xedatutakoaren arabera.

29. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

29.1 Konfidentzialtasuna.

Kontratistak kontratua betearaztean eskura duen informazio guztia isilpekoa izango da. Kontratistak eta kontratua betearazteko esleitutako langileek ezin izango dute informaziorik edo daturik beren mesederako erabili, ezta hirugarrenei jakinarazi edo laga ere, kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe. Era berean, behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte informazio ororen konfidentzialtasuna eta izaera erreserbatua bermatzeko.

Nolanahi ere, egiten diren lanek datu pertsonalen tratamendurik eskatzen ez badute, debekatuta egongo da datu horietara sartzea. Hala ere, ustekabean datu pertsonalak ezagutuz gero, nahitaez gorde beharko da horien gaineko isilpekotasuna.

29.2 Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat hartuko dira datu pertsonalak biltzea, erregistratzea, gordetzea, lantzea, aldatzea, blokeatzea eta ezabatzea ahalbidetzen duten eragiketa eta prozedura teknikoak, automatizatuak zein ez-automatizatuak, bai eta komunikazioen, kontsulten, interkonexioen eta transferentzien ondoriozko datu-trukeak ere, pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarriei buruzko edozein informaziori eragiten diotenean.

- Kontratuaren betearazteak enpresa adjudikaziodunak datu pertsonalak tratatzea edo datu horietara sartzea badakar, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian eta ondoren adierazten diren arauetan xedatutakoa aplikatuko da:

  - Datu pertsonalen gaineko isilpekotasun- eta babes-betebeharra.

  - Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122. artikuluan eta hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez, bi alderdiak datua pertsonalen babesaren arloko indarreko araudiaren mendi egongo dira, hau da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (DBEO), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (DPBEDBLO). Araudi hori kontratu-espedienteari eta ondoriozko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa izango da, eta nahitaez bete beharko dute kontratistak nahiz atxikitako erakundeek. Horrenbestez, bi alderdiek datuen babesaren arloko araudi horretan, klausula honetan eta kontratu-agirietan ezarritako betebehar eta xedapen guztiak bete beharko dituzte.

  - Bi alderdiek datu pertsonalen babesaren arloko araudia beteko dutela adieraztea kontratua betearazteko baldintza berezia eta funtsezko kontratu-betebeharra izango da, SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuko f) letran xedatutakoaren ondorioetarako.

- Erakunde adjudikaziodunaren jarduerak tratamenduaren arduradunaren datu pertsonalen tratamendurik eskatzen ez badu, berariaz debekatuta egongo da datu horietara sartzea. Hala ere, ustekabean edo noizbehinka tratamenduaren arduradunaren datu pertsonalak ikusi edo tratatu behar badira, erakunde adjudikazioduneko langileek datu horien gaineko isilpekotasuna gordetzeko betebeharra izango dute. Era berean, erakunde adjudikaziodunak neurri egokiak hartuko ditu bere langileen sarbidea datu pertsonaletara, datu horiek jasotzen dituzten euskarrietara eta informazio-sistemako baliabideetara mugatzeko.

  Nolanahi ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoan, xedatutakoa aplikatuko da, SPKLren 202. artikuluaren 1. apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe.

30. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK.

30.1 Egindako lanen jabetza

Kontratua gauzatzean egindako lan guztiak, edozein fasetan daudela ere, botere adjudikatzailearen jabetzakoak izango dira. Horrenbestez, botere adjudikatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango du egindako prestazioen zati bat entregatzeko, baldin eta hori bateragarria bada behin betiko lan-programarekin eta ez badu lanen garapen egokia oztopatzen.

Era berean, kontratistak prestazioa aurrez jasotzea eskatu ahal izango du, eta botere adjudikatzaileari dagokio harrera hori onartu ala ez erabakitzea.

30.2 Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideen babespean dauden produktuak garatzea eta botere adjudikatzailearen eskura jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide horiek botere adjudikatzaile kontratatzaileari lagatzea..

Ondorioz, Legazpiko Udalak, ekoizpen-formatu originalaz gain, egindako lan edo produktuaren gaineko jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubide guztiak eskuratuko ditu, bereziki erreprodukzio-, banaketa-, komunikazio publiko- eta eraldaketa-eskubideak, bai eta ustiapen ekonomikoa izan dezaketen gainerako eskubide guztiak ere. Eskubide horiek esklusibotasunez lagako dira, kontratua sinatzen den unean dauden ustiapen-modalitate eta euskarri guztietarako, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehieneko eperako, eta mundu osorako lurralde-eremuarekin, salbuespenik gabe.

Eskubide horien titulartasunak ez du soilik azken emaitza edo produktua hartzen; garapenean sortutako zirriborroak, eskemak, aurretiazko dokumentuak, fluxu-diagramak eta, oro har, jabetza industrial edo intelektualaren xede izan daitezkeen lan eta material guztiak ere barne hartzen ditu.

Kontratistak Legazpiko Udalari zehatz-mehatz jakinarazi beharko dizkio kontratatutako lanaren emaitzan txertatuko diren aurretiazko ekarpenen gainean hirugarrenek izan ditzaketen erreserba edo legezko eskubide guztiak. Era berean, kontratistaren betebeharra izango da eskubide edo erreserba horien mende dauden elementu guztiak erabiltzeko beharrezko eskubideak eta erabilgarritasuna bermatzea, eta horrek eragin ditzakeen kostu guztiak bere gain hartzea.

Kontratista izango da eskubide horien inguruan aurkezten diren erreklamazio guztien erantzule bakarra, eta Legazpiko Udalari erreklamazio horien ondorioz sor dakizkiokeen kalte-galera guztiak ordaindu beharko dizkio, baita ordezkaritza juridikoaren eta defentsaren ondoriozko gastuak ere.

Kontratuaren xedea aplikazio informatikoak diseinatu edo garatzea denean, aurreko apartatuan aipatutako informazioak nahitaez jaso beharko ditu erabilitako iturri guztiak, haien bertsioak eta jatorria, osagai bakoitzari aplikatutako lizentziak eta osagai horiek konpilazioan edo exekuzioan erabiltzen diren adierazten duen

informazioa.

Kontratistak ezta lana prestatzen parte hartu duen beste edozein pertsonak ere, ezin izango du egindako lana bere intereserako erabili, ez eta lanaren zatiak, grabazioak, testuak, marrazkiak, argazkiak edo antzeko materialak hirugarrenei laga edo helarazi ere. Halaber, ezin izango dute lanaren edukia, osorik edo zati batean, argitaratu Legazpiko Udalaren aldez aurreko berariazko eta idatzizko baimenik gabe. Era berean, ezin izango dute kontratu honetatik erator daitezkeen jabetza industrial edo intelektualeko eskubide berdin edo antzekoak erregistratzen saiatu, eta betebehar horrek indarrean jarraituko du kontratua amaitu ondoren ere. Nolanahi ere, kontratista izango da betebehar horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalte eta galera guztien erantzule.

Kontratistak konpromisoa hartzen du Legazpiko Udalarekin lankidetzan aritzeko eta Udalak eskatzen dizkion agiri guztiak sinatzeko, klausula honetan aipatutako eskubide guztiak Udalaren alde behar bezala eskualdatu edo babestu ahal izateko.

31. ZIGORRAK.

Kontratistari legez dagozkion akatsak konpontzeko eta kalte-galerak ordaintzeko betebeharra eta SPKLn edo baldintza orokorren 38. klausulan aurreikusitako kontratua suntsiarazteko aukera alde batera utzi gabe, kontratazio-organoak kontratistari zigorrak ezarri ahal izango dizkio honako arrazoi hauengatik:

31.1 Arrazoiak eta zenbatekoak.

a) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 13.1 klausulan adierazitako ez-betetzeak: klausula horretan ezarritako zenbatekoak.

b) Kontratua osorik gauzatzeko edo epe partzialak betetzeko ezarritako epeak ez betetzea: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan ezarritako zenbatekoak, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 13.2 klausulan bestelakorik ezartzen bada

c) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 1etik % 10era bitarteko zigorra, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.1.4 klausulan xedatutakoa ez betetzea: azpikontratuaren zenbatekoaren % 50 arteko zigorra.

e) Baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoa ez betetzea: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 0,01 izango da.

f) Eskaintzan hartutako eta balorazio-irizpidetzat hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 1 eta % 10era bitarteko zigorra, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

g) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.2 klausulan adierazitako ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak ez betetzea (ondorio horietarako, 12.2.2.1 klausula ez betetzetzat joko da soldatak ez ordaintzea edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza apalagoak behin eta berriz aplikatzea, baldin eta ez-betetzea larria eta dolozkoa bada): zigorra kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 0,5etik % 10era bitartekoa izango da, ez-betetzearen larritasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

h) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko ezarritako epea ez betetzea, plana nahitaezkoa denean: berandutze-egun bakoitzeko zigorra euro batekoa izango da kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000 euro bakoitzeko.

31.2 Prozedura.

Zigorrak kontratazio-organoaren ebazpen bidez ezarriko dira, eta hori erabakitzeko prozedurak honako jarduketa hauek barne hartuko ditu:

a) Kontratuaren arduradunak txostena egingo du, bertan antzemandako ez-betetzeak identifikatuz eta ezarri beharreko zigorraren zenbatekoa proposatuz.
b) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldia emango zaio, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.
c) Kontratazio-organoak ebazpena emango du.
d) Zigorren zenbatekoak kontratistari egin beharreko ordainketa oso edo partzialetatik kenduko dira. Hori posible ez denean, hala badagokio, eratutako behin betiko bermearen kontura egingo da kobrantza.

32. PREZIOA ORDAINTZEA.

Prezioa honako baldintza hauen arabera ordainduko da:

32.1 Emandako edo egindako zerbitzuen ziurtagiria.

32.1.1 Kontratistak kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan aurkeztu beharko ditu zerbitzuen ziurtagiria edo, hala badagokio, ziurtagiriak, honako datu hauek jasota:

a) Espedientearen kodea.
b) Kontratistaren izena edo sozietatearen izena eta IFZ.
c) Emandako edo egindako zerbitzuen zerrenda balioetsia, hitzartutako prezioaren edo prezioen arabera (BEZik gabe).
d) Azpikontratistek egindako prestazioei buruzko datuak: azpikontratisten izenak, egindako lanak eta ordainketa-epearekin zuzenean lotutako hitzartutako baldintzak.
e) Zerbitzuei dagokien aldia (ziurtagiria partziala bada).

32.1.2 Epea eta baldintzak.

Epe eta baldintza hauetan aurkeztuko da:

a) Klausula espezifikoen 5.2 klausulan prezioaren ordainketa bakarra aurreikusten bada, ziurtagiri osoa aurkeztu beharko da kontratua gauzatu eta amaitu ondorengo hogeita hamar (30) eguneko epean.
b) Klausula espezifikoen 5.2 klausulan prezioaren ordainketa partzialak aurreikusten badira, ziurtagiri partzialak aurkeztu beharko dira klausula horretan ezarritako aldizkako epemuga bakoitzaren ondorengo hogeita hamar (30) eguneko epean.

32.2 Adostasuna eta fakturaren erregistroa.

Kontratuaren arduradunak zerbitzuen ziurtagiria onartu beharko du hura erregistratu eta hogeita hamar (30) eguneko epean, eta egun berean onarpen-agiriaren kopia bidali beharko dio kontratistari posta elektronikoz.

Onespen- agiriaren kopia jaso ondoren, kontratistak faktura aurkeztu beharko du kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, zerbitzua eman den egunetik zenbatzen hasita hogeita hamar (30) eguneko epean.

32.3 Ordainketa.

Botere adjudikatzaileak prezioa ordaindu beharko du zerbitzuen ziurtagiria onartu eta hogeita hamar (30) eguneko epean. Ordainketa egiteko betebeharra epe horretan betetzen ez badu, kontratistari berandutze-interesak eta kobrantza-

kostuen ondoriozko kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio, aurreko paragrafoan adierazitako epea amaitzen denetik aurrera, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Nolanahi ere, interesak sortzeko epearen zenbaketa kontratistak emandako edo egindako zerbitzuen ziurtagiria edo ziurtagiriak eta faktura edo fakturak kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan aurkeztu ondoren hasiko da. Kontratistak faktura administrazio-erregistro horretan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea betetzen ez badu, interesen sortzapena ez da hasiko dagokion erregistroan faktura aurkeztu eta hogeita hamar (30) egun igaro arte, baldin eta epe horretan botere adjudikatzaileak, hala badagokio, adostasuna eman eta dagokion ordainketa egin ez baditu.

25/2013 Legearen arabera faktura elektronikoa egin eta bidaltzera behartuta dauden hornitzaileek Legazpiko Udalaren webgunean dagoen Faktura Elektronikoen Sarrera Puntuaren bidez aurkeztu beharko dute faktura, formatu egituratuan eta ziurtagiri aitortu batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratuarekin sinatuta. Betebehar hori ez duten hornitzaileek eta 1.000 euro arteko fakturek ere Udal honetako Fakturen Sarrera Puntua erabili ahal izango dute fakturak aurkezteko. Fakturek azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko dituzte: faktura-zenbakia eta data; faktura egin behar duenaren eta hartzailearen izen-abizenak edo sozietate-izena eta IFZ; ondasunaren edo zerbitzuaren deskribapena; zerga-tasa eta zerga-kuota; eta, hala badagokio, transferentzia egiteko banku-kontuaren zenbakia.

33. KONTRATUA ALDATZEA.

33.1 Baldintzak.

Kontratua burutu ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiengatik baino ezingo du kontratua aldatu, kontratuaren klausula espezifikoen 16. klausulan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Interes publikoko arrazoitzat hartuko dira dagokion aurrekontu-ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren helburua lortzera bideratutakoak

33.2 Prozedura.

33.2.1 Aldaketa erabakitzeko prozedurak, nolanahi ere, honako jarduketa hauek jasoko ditu:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta ondoz ondoko traktuak, kontratuaren xedea osatzen duten unitate-kopurua zehaztasunez zehaztu dutenak:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, non zehaztuko baitira aldaketa justifikatzen duten interes publikoko arrazoiak, aldaketaren irismen kualitatiboa eta kuantitatiboa, gertatzen diren inguruabarrak eta horiek benetan gertatzen direla egiaztatzea

2) Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedurari hasiera ematea

erabakitzen duena.

3) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldi-izapidea ematea.

4) Proiektuaren edo zehaztapen teknikoen egileari hiru (3) egun balioduneko entzunaldi-izapidea ematea, baldin eta horiek kontratazio-organotik kanpoko hirugarren batek prestatu baditu.

5) Txosten juridikoa.

6) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

7) Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, hala badagokio, aldaketa onartu aurretik eskatutako txosten guztiekin batera.

8) Aldaketaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratzea, kontratua erregulazio harmonizatuaren mende badago (zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotakoetako bat denean izan ezik), eta aldaketa SPKLren 205.2 artikuluko a) edo b) letretan aurreikusitako kasuetako bati badagokio..

b) Prezio unitarioko ondoz ondoko traktuko kontratuak, kontratua egitean prestazio-unitateen guztizko kopurua zehaztasunez zehaztu denean:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, hasieran aurreikusitakoak baino benetako premia handiagoak daudela justifikatu eta horien irismen ekonomikoa zehazten duena.

2) Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena.

3) Kontratistari bost (5) egun balioduneko entzunaldi-izapidea ematea

4) Txosten juridikoa.

5) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari jakinaraztea.

6) Aldaketaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea, kontratistaren alegazioekin eta, hala badagokio, aldaketa onartu aurretik eskatutako txosten guztiekin batera.

33.2.2 Jarraian zehazten diren kasuetan, gainera, honako jarduketa hauek egin beharko dira

1) Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea aldatzen bada, kontratistak bermea berriro egokitu beharko du, ebazpena jakinarazi eta hamabost (15) egun naturaleko epean.

2) Gobernu Kontseiluaren baimena lortu beharko da, bi inguruabar hauek batera gertatzen direnean:

a. Kontratuaren iraupena sektore publikoko kontratuei buruzko araudian ezarritakoa baino handiagoa izatea, kontratu jakin batzuetarako modu berezian edo kontratu-kategoria jakin batzuetarako modu orokorrean.

b. Aldaketa kontratua suntsiarazteko arrazoia izatea.

3) Kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan baldintza jakin batzuk dituzten aseguru espezifikoak eskatu badira eta kontratua aldatu ondoren baldintza horiek edo kontratuaren iraupena edo egikaritze-epea aldatzen badira, kontratistak aseguru horien poliza berri bat kontratatu beharko du, aurrekoaren estaldura eta kapital berberekin edo antzekoekin, edo lehendik dauden polizak luzatu beharko ditu, aldaketaren xede diren

ezaugarriak eta, hala badagokio, epe osagarria estal ditzaten.

4) Aldaketa administrazio klausula partikularren pleguan (AKP) aurreikusita ez badago, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena eskatu beharko da, kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea 6.000.000 eurokoa edo handiagoa bada eta aldaketak %20tik gorako aldaketa badakar. Ondoz ondoko aldaketak egiten badira, portzentajezko aldaketa kalkulatzeko, guztiak hartuko dira kontuan.

33.2.3 Nolanahi ere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatuko da, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz argitaratuko da.

33.3 Ondorioak.

Klausula honetan xedatutakoaren arabera adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. Administrazio klausula partikularren pleguan aurreikusi gabeko aldaketen kasuan, SPKLren 206. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da..

34. AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontratazioa baimentzen bada, kontratistak prestazioaren exekuzioaren zati bat azpikontratatu ahal izango du, klausula horretan ezarritako mugen barruan eta klausula honetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Kontratistak kontratuaren exekuzioaren zati bat hirugarren bati ematen badio, botere adjudikatzailearen aurrean kontratuaren exekuzio osoaren erantzukizuna bere gain hartuko du, plegu honetan eta kontratuan ezarritakoa zorrotz betez. Horren barruan sartzen dira SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak, bai eta SPKLren 202. artikuluaren 1. apartatuko azken paragrafoan aipatzen den betebeharra ere, datu pertsonalen babesaren arloko Estatuko eta Europar Batasuneko araudia betetzeari buruzkoa.

34.1 Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala bete badu, baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazitako moduan, eta azpikontratazioa bertan zehazki adierazitako baldintzetan egiteko asmoa badu, **VI.2 eranskineko** adierazpena aurkeztu beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratistak lanak egiten hasi baino gutxienez bost (5) egun baliodun lehenago.

b) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala bete badu, baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazitako moduan, baina azpikontratazioa EKABen adierazitakoez bestelako baldintzetan egiteko asmoa badu, edo aipatutako atala bete ez badu, **VI.2 eranskineko** inprimakia aurkeztu beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratistak lanak egiten hasi baino gutxienez hamabost (15) egun baliodun lehenago.

34.2- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Kontratistak justifikatu beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin hitzartutako ordainketa-baldintzak bete dituela. Baldintza horiek SPKLren 216. artikuluan ezarritako mugak errespetatu beharko dituzte, baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatutakoarekin bat etorriz, eta, azpikontratisten kasuan, baita baldintza orokorren 32.1.1 klausulako d) letran xedatutakoarekin bat etorriz ere.

35. KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEEAREN OSAERA ALDATZEA.

35.1 KONTRATUA LAGATZEA.

35.1.1 Kasuak.

SPKLren 98. artikuluan araututako kontratistaren ondorengotza-kasuak eta SPKLren 69.9 artikuluan aurreikusitako ABEEaren osaera aldatzeko kasuak alde batera utzi gabe, kontratua honako kasu hauetan laga ahal izango da:

1. Kontratista kaudimengabezia-egoeran dagoenean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta oraindik konkurtso-deklarazioa eskatu ez duenean, baldin eta beste edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo ez bada.

2. Kontratista konkurtsoan deklaratu denean, baita likidazio-fasea ireki denean edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi dionean ere birfinantzaketa-akordio bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikitzeko negoziazioak hasi dituela, konkurtso-arloko legerian aurreikusitako baldintzetan.

3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko borondatea adierazi duenean.

35.1.2 Prozedura.

1. Kontratistak idazki bat aurkeztuko dio kontratuaren arduradunari, kontratua lagatzeko baimena eskatzeko. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

i. Kontratuaren lagapena eskatzeko aukera ematen duen inguruabarra egiaztatzen duen dokumentazioa.

ii. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena.

3. Kontratuaren arduradunaren txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez %20 exekutatu izana bete beharreko baldintza den ala ez adieraziko duena, eta, hala bada, baldintza hori betetzen den ala ez zehaztuko duena. Era berean, SPKLren 214. artikuluaren 1. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritako mugak errespetatzen direla adierazi beharko du

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak lagapena formalizatzeko eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztea.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, lagapena baimentzen duena eta kontratistari jakinarazten diona.

7. Lagapena baimentzen duen kontratazio-organoaren ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratzea.

8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

9. Lagapen-hartzaileak bermea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian eratzea. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko harik eta lagapen-hartzailearen bermea behar bezala eratu arte.

35.1.3 Baldintzak.

35.1.3.1 Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimendu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. SPKLren 214. artikuluaren 2. apartatuan ezarritako betekizunak betetzea
2. Lagatzailearen (kontratistaren) gaitasun teknikoak edo ezaugarri pertsonalak ez izatea kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria
3. Lagapenaren ondorioz merkatuan lehia benetan ez murriztea.

35.1.3.2 Ez da kontratuaren lagapena baimenduko, baldin eta horrek kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketa badakar eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua badira.

35.1.3.3 Kontratistaren (lagatzailearen) eta lagapen-hartzailearen arteko kontratu-lagapena eskritura publikoaren bidez formalizatuko da.

35.1.3.4 Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko harik eta lagapen-hartzailearen bermea behar bezala eratu arte.

35.2 ABEEARAN OSAERA ALDATZEA.

35.2.1 ABEEaren osaeraren aldaketak kideen kopurua handitzea, murriztea edo kide bat edo batzuk beste batek edo batzuek ordeztea badakar, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idazki bat aurkeztuko dio kontratuaren arduradunari, aldaketa egiteko baimena eskatzeko. Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
i. ABEEaren osaera aldatzea justifikatzen duten inguruabarren egiaztagiriak.
ii. ABEEak, osaera berriarekin, eskatutako kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela eta hura osatuko duten kide guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena.

3. Kontratuaren arduradunaren txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez %20 exekutatu dela adierazten duena.

4. Txosten juridikoa.

5. Kontratistak ABEEa osaera berriarekin formalizatzeko eskritura publikoaren zirriborroa aurkeztea.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzea baimentzen duena, eta ABEE kontratistari jakinaraztea.

7. ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratzea.

8. ABEEa osaera berriarekin eskritura publikoan formalizatzea.

9. ABEEak berme berria Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian eratzea. ABEEak aurretik emandako bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko harik eta berme berria behar bezala eratu arte.

35.2.2 ABEEa osatzen duten kideetako baten edo batzuen bat-egitearen, zatiketaren edo jarduera-adarraren eskualdaketaren ondorioz sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozko sozietatea, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ABEEko kide ez bada, baldintza orokorren 35.2.1 klausulan ezarritako izapide berak egingo dira, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez %20 exekutatu izanari buruzko izapidea izan ezik

35.2.3 ABEEko kide bat edo batzuk konkurtsoan deklaratzen badira, likidazio-fasea ireki bada ere, SPKLren 69.9 artikuluko c) letran xedatutakoa aplikatuko da, SPKLren 212.5 artikuluan kontratua exekutatzeko behar adinako berme gehigarriak emateari buruz ezarritakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idazki bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari, ABEEko kide baten edo batzuen konkurtso-egoera egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, eta eskaera hauetako bat egingo du:

i. Kontratua gainerako kideekin exekutatzen jarraitzea. Kasu horretan, ABEEak, osaera berriarekin, eskatutako kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

ii. Kontratua ABEEaren hasierako kide guztiekin exekutatzen jarraitzea, konkurtsoan deklaratutako kidea edo kideak barne.

2. Baldintza orokorren 35.2.1 klausulako 2tik 9ra bitarteko puntuetan (3. puntuan izan ezik) deskribatutako izapideak egingo dira. Kontratazio-organoak ebazten badu ABEEak kontratua bere kide guztiekin exekutatzen jarraitzea, konkurtsoan deklaratutako kidea edo kideak barne, ABEE kontratistak kontratua behar bezala exekutatzeko behar adinako berme gehigarriak eratu beharko ditu, kontratazio-organoak ebazpenean adierazitakoaren arabera.

VI. **KONTRATUA AZKENTZEA**

36. BETETZEA: ENTREGATZEA, JASOTZEA ETA LIKIDATZEA

36.1 Entregatzea eta kontratua behar bezala bete dela egiaztatzea.

Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak PTPn ezarritako zehaztapenen eta baldintza orokorren 8. klausulan adierazitako epeen arabera entregatuko dira PTPn besterik aurreikusten ez bada, entrega-data honako hau izango da:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak prestazio guztiak kontratuaren arduradunari PTPn zehaztutako moduan eta formatuan entregatzen dizkion eguna.

- Ondoz ondoko traktuko kontratuetan: kontratuaren iraupen osoa amaitzen den eguna.

  Entrega egin eta gehienez ere hamabost (15) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak beharrezko egiaztapenak egingo ditu hitzartutako baldintzak behar bezala bete direla egiaztatzeko, eta egiaztapen-txosten bat egingo du, honako hauetako baten arabera::

a) Bete direla ondorioztatzen badu: kontratua jasotzea proposatuko du, eta harrera egiteko data zehaztuko du —kontratuaren klausula espezifikoen 15.2 klausulan adierazitako epearen barruan—. Era berean, txostena kontratistari igorriko dio eta, espedientea egiaztapen fisikoaren mende badago, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari ere bidaliko dio.

b) Bete ez direla ondorioztatzen badu: antzemandako ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu, eta horiek zuzentzeko jarraibideak zehaztuko ditu. Txostena kontratistari igorriko dio, zuzenketak egiteko epea adieraziz, eta jakinaraziko dio bost (5) egun balioduneko epea izango duela txostenean jasotako ondorioen aurka idatziz erreklamazioa aurkezteko.

Kontratistak adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez badu, ulertuko da txostenean jasotako jarraibideekin ados dagoela eta antzemandako akatsak zuzentzeko betebeharra duela.
Kontratistak epe barruan erreklamazioa aurkezten badu, egiaztapen-txostena eta erreklamazioa kontratazio-organoari helaraziko zaizkio, eta hark hamabost (15) egun balioduneko epean ebatziko du.

36.2 Akatsak zuzentzea.

36.2.1 Akatsak zuzentzeko emandako epea amaitu ondoren, kontratuaren arduradunak beharrezko egiaztapenak egingo ditu emandako jarraibideak behar bezala bete direla egiaztatzeko, eta, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean, bigarren egiaztapen-txostena egingo du:

a) Behar bezala bete direla ondorioztatzen badu, baldintza orokorren 36.1 klausulako a) apartatuan adierazitako jarduketak egingo ditu

b) Bete ez direla ondorioztatzen bada: antzemandako ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu, eta egiaztapen-txostena kontratistari eta kontratazio-organoari helaraziko die, penalitateak ezartzeko proposamenarekin batera eta, hala badagokio, inguruabarrak kontuan hartuta, honako jarduketa hauetako bat proposatuz:

1) Kontratua suntsiarazteko prozedurari hasiera ematea, bermea bahituta, eta kontratistak botere adjudikatzaileari eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra ezartzea, bahitutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian.
2) Akatsak zuzentzeko beste epe bat ematea, kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen %25era arteko penalitatea ezarrita.

Azpikontratistak horretarako emandako bigarren epean ere akatsak zuzentzen ez baditu, kontratua suntsiaraziko da, bermea bahituko da, eta kontratistak botere adjudikatzaileari bahitutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galerak ordaindu beharko dizkio.

36.2.1 Obra-proiektuak idazteko kontratuetan, akatsak zuzentzea eta hutsuneak

konpontzea SPKLren 315. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

36.3 Harrera.

Nolanahi ere, kontratuaren harrera egin arte, kontratistak hitzartutako baldintzak behar bezala betetzearen erantzukizuna izango du. Kontratuaren arduradunak aldeko egiaztapen-txostena egin izanak edo zerbitzu partzialen ziurtagiriak onartu izanak ez du kontratista erantzukizun horretatik salbuetsiko, ezta inolako eskubiderik emango ere

Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu hitzartutako baldintzak behar bezala bete direla, kontratuaren harrera egingo da.

Harrera-ekitaldira kontratuaren arduraduna eta kontratistaren ordezkaria joango dira, eta, espedientea egiaztapen fisikoaren mende badago, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat ere bertaratuko da. Kontratuaren arduradunak egingo du harrera-ekitaldirako deialdia, eta gutxienez bost (5) egun baliodun lehenago bidaliko du. Harrera-ekitaldiaren akta egingo da, bi aletan, eta bertaratutako guztiek sinatu beharko dute.

36.4 Likidazioa.

Kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean eta/edo kontratuaren klausula espezifikoetan SPKLren 309.1 artikuluaren bigarren paragrafoan aurreikusitakoa berariaz jaso denean, kontratazio-organoak dagokion likidazioa onartzea erabakiko du, harrera-aktaren edo adostasun-aktaren datatik zenbatzen hasita hogeita hamar (30) eguneko epean. Erabakia kontratistari jakinaraziko zaio eta, hala badagokio, dagokion zenbatekoa ordainduko zaio, baldin eta faktura harrera egin ondoren aurkeztu ez bada.

Kontratistak faktura harrera egin ondoren aurkeztu badu, hogeita hamar (30) eguneko epea kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan faktura aurkeztu den egunetik hasiko da zenbatzen.

Likidazio-saldoaren ordainketa atzeratzen bada, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutakoaren arabera.

37. BERME-EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA.

37.1 Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan ezarritako berme-epean —kontratua jaso eta hurrengo egunean hasiko dena—, kontratistak bere kontura zuzendu beharko ditu egindako lanetan agertzen diren akats edo hutsak, baldin eta haien existentzia berme-epe horren barruan egiaztatu eta idatziz jakinarazten bada

Akats edo huts horiek behar bezala eta epe barruan zuzentzeko eskatu ondoren, kontratistak ez baditu zuzentzen, botere adjudikatzaileak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 100. artikuluan ezarritako nahitaez betearazteko bitartekoak erabili ahal izango ditu.
Berme-epea igaro eta botere adjudikatzaileak akats edo hutsak zuzentzeko

erreklamaziorik aurkeztu ez badu behar bezala eta epe barruan, kontratista egindako prestazioaren ondoriozko erantzukizunetik salbuetsita geratuko da, obra-proiektuak idazteko kontratuei dagokienez SPKLren 314. eta 315. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe.

37.2 Bermea itzultzea.

37.2.1 Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan berme-eperik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakiak bermea itzultzeko edo deuseztatzeko agindua jasoko du.

37.2.2 Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan berme-epea ezartzen bada, epe hori amaitutakoan, honako jarduketa hauek egingo dira:

a) Berme-epean erreklamaziorik aurkeztu ez bada behar bezala eta epe barruan, edo, erreklamazioak aurkeztu badira, haien xede diren akatsak edo hutsak zuzendu badira, kontratazio-organoak bermea itzultzea edo deuseztatzea erabakiko duen ebazpena emango du..

Ebazpena berme-epea amaitu eta gehienez ere bi (2) hilabeteko epean emango eta jakinaraziko zaio kontratistari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari edo dagokion botere adjudikatzailearen organo baliokideari jakinaraziko zaio.

b) Berme-epean erreklamazioak behar bezala eta epe barruan aurkeztu badira, eta kontratistak ez baditu akatsak edo hutsak zuzendu, kontratuaren arduradunak dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, akats edo huts horiek behar bezala zuzen ditzan. Horretarako, epe bat emango dio. Epe horretan, kontratistak egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna izaten jarraituko du, SPKLren 311. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, eta ez du eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik inolako ordainsaririk jasotzeko.

Kontratistak ez baditu kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak horretarako emandako epean betetzen, bermea bahituko da.

37.2.3 Kontratuaren klausula espezifikoen 8.5 klausulan bermearen zati proportzionala itzultzea edo deuseztatzea onartzen bada, baldintza orokorren 37.1 eta 37.2 klausuletan ezarritakoaren arabera jardungo da. Berme-epea ezarri bada, harrera partzialaren biharamunean hasiko da.

37.2.4 Kontratua amaitu denetik urtebete igaro bada eta, berme-epea amaitu ondoren, harrera formala eta likidazioa kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik egin ez badira, bermea itzuli edo deuseztatuko da, SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren erantzukizunak garbitu ondoren. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000 eurotik beherakoa bada eta kontratista ETE bat bada, SPKLren 11.5 artikuluan jasotako erreferentzien arabera definitua, urtebeteko epea sei (6) hilabetera murriztuko da.

38. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoez gain, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuei dagokienez SPKLren 294. artikuluko c),

d) eta f) letretan ezarritakoez gain, eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 17. klausulan jasotakoez gain, honako hauek ere kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira

a) Botere adjudikatzailearen zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak oztopatzea, SPKLren 190. artikuluaren bigarren parrafoan xedatutakoaren arabera.

b) Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

VII. **GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA.**

39. GORABEHERAK.

39.1 Kontratazio-organoaren prerrogatibak.

Administrazio-kontratuak interpretatzeari, haien betearazpenak sortzen dituen zalantzak argitzeari, kontratua aldatzeari, kontratua gauzatzean kontratistari egotz dakizkiokeen erantzukizunak deklaratzeari, kontratuaren exekuzioa eteteari, kontratua suntsiarazteari eta suntsiarazpen horren ondorioei buruz sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoaren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta haien aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da organo beraren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta

39.2 Prozedura.

Baldintza-agiri honetan eta sektore publikoko kontratuei buruzko araudian kasu jakin batzuetarako ezarritakoa alde batera utzi gabe, kontratua gauzatzean edo azkentzean botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean sortzen diren gorabehera guztiak espediente kontraesankor baten bidez izapidetuko dira. Espediente horrek, nahitaez, honako jarduketa hauek jasoko ditu::

a) Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.
b) Kontratistari entzunaldia ematea, bost (5) egun balioduneko epean.
c) Kontratuaren arduradunaren txostena.
d) Hala badagokio, aholkularitza juridikoaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.
e) Kontu-hartzailearen esku-hartzea, aurreko apartatuan ezarritako epe berean egin beharrekoa.
f) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari jakinaraztea.

Interes publikoko arrazoiek edo gorabeheraren izaerak kontrakoa eskatzen badute, prozedura hau izapidetzeak kontratuaren exekuzioa etetea ekarriko du.

40 EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA.

SPKLren 44.1 artikuluan jasotako kontratuei dagokienez, SPKLren 44.2 artikuluan aurreikusitako egintzen aurka aurkezten den kontratazio-arloko errekurtso berezia

ebazteko eskumena duen organoa, bai eta dagozkion behin-behineko neurriak hartzeari buruz erabakitzeko eskumena duena ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da

SPKLren 44.1 artikuluan jasota ez dauden zerbitzu-kontratuei dagokienez emandako egintzen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (112., 121. eta 123. artikuluetan) aurreikusitako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

ERANSKINA. DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Hornitzaileen kudeaketaren, lizitazioen eta sektore publikoko proiektuen eta kontratuen betearazpenaren kontrolaren eta kudeaketaren esparruan, jarraian jasotzen da DBEOren 13. Artikuluan eskatzen den informazioa:

Tratamenduaren izena	KONTRATAZIOAREN KUDEAKETA
Tratamenduaren arduraduna	Legazpiko Udala Helbidea: Euskal Herria Enparantza Plaza, 1, 20230, Legazpi
Datuak babesteko ordezkaria (harremanetarako datuak)	Datuak babesteko ordezkaria. e-posta: legazpi@Legazpi.eus
Tratamenduaren helburuak	Udal Ondasun eta Zerbitzu Publikoen kudeaketarako kontratazioa
Tratamenduaren oinarri juridikoa	DBEO: 6.1.b) Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunak eskatuta kontratua egin aurreko neurriak aplikatzeko. DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplika dakiokeen legezko betebehar bat betetzeko: Azaroaren 8ko, 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa
Kontserbazio-epea	Datuak bildu ziren xedea betetzeko behar den denboran gordeko dira, bai eta xede horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran ere. Ondoren, datuak Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean xedatutakoaren arabera kontserbatuko dira
Hartzaileak	Datu pertsonalak honako hauei laga ahal izango zaizkie: Beste administrazio publiko batzuei (legez ezarritako betebeharrak betetzeko edo gaiaren gaineko eskumenak dituztenean).
Eskubideak baliatzea	Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien tratamendua mugatzeko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali beharko du goian adierazitako helbidera, eta, bertan, NANaren edo baliokidea den beste identifikazio-agiri baten kopia erantsi beharko du. Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkezteko.
Datuen jatorria	Interesduna bera edo haren legezko ordezkaria, Administrazio

	Publikoa eta erregistro publikoak.

AKPREN ERANSKINAK

LABURPEN-TAULA

I. **KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKO JAKIN BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA**.

- I.1 ERANSKINA. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN KALKULUA: KOSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK (Ez dagokio)

II. A GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

- II.1. ERANSKINA. EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)
- II.2 ERANSKINA. BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA
- II.3 ERANSKINA. ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALTZAT JOTZEKO ADIERAZPENA (hala badagokio)
- II.4 ERANSKINA. ABEE FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA (hala badagokio)
- II.5 ERANSKINA. ENPRESA TALDE BEREKO ENPRESEN ADIERAZPENA
- II.6 ERANSKINA. ESKAINTZA ZEIN LOTERAKO AURKEZTEN DEN
- II.7 ERANSKINA. LEGAZPIKO UDALAREN AURREAN EGIN BEHARREKO AITORPEN OSAGARRIA
- II.8 ERANSKINA. INTERES-GATAZKARIK EZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA (IGEA)

III. **B GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**. (Ez dagokio)

IV. **C GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.** (Formulak).

- IV.1. ERANSKINA. ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BIDEZ AUTOMATIKOKI BALORATZEN DIREN BESTELAKO IRIZPIDEAK
- BESTELAKOAK: ikus kontratuaren klausula espezifikoen 22.2.2 klausula: "FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI BALORATZEN DIREN IRIZPIDEAK".

V. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

- V.1 ERANSKINA. BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENAREN ETA BALIABIDEEN ESKURAGARRITASUNA KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN

- V.2 ERANSKINA. SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
- V.3 ERANSKINA. BANKU-ABALAREN EREDUA. ABEErentzako BANKU-ABALAREN EREDUA.
- V.4 ERANSKINA. KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA. ABEErentzako KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA.
- V.5 ERANSKINA. ERREGISTRAON INSKRIBATUTA EZ DAUDEN LIZITATZAILEEN EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

VI. KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKOA (GAUZATZE-FASEAN).

- VI.1 ERANSKINA. ZERBITZUEN ZIURTAGIRIA ONARTZEA
- VI.2 ERANSKINA. AZPIKONTRATAZIOAREN JAKINARAZPENA
- VI.3 ERANSKINA. LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUEN GAINEKO ADIERAZPENA.

I. 1 ERANSKINA

II.1 ERANSKINA

EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)

BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Normalizatutako formulario behar bezala identifikatutako sei zatitan egituratzen da. Zati bakoitzean, lizitatzaileek aurkeztu beharreko informazio zehatza eta xehatua jasotzen da.

I. zatia- Kontratazio-prozedurari eta botere eta botere adjudikatzaileari edo erakunde adjudikatzaileari buruzko informazioa: Udalak aurrez beteta aurkezten du.

II. zatia- Operadore ekonomikoari buruzko informazioa: EKAB zerbitzu elektronikoan, zati honetako A, B, C eta D apartatuetako eremuak EZ balioarekin datoz lehenetsita, eta, beraz, **lizitatzaile bakoitzak dagokion egoerara egokitu beharko ditu**.

A- Operadore ekonomikoari buruzko informazioa: dagozkion laukiak bete. Operadorea baimendutako operadore ekonomikoen zerrenda batean inskribatuta dagoen edo ziurtagiri baliokideren bat duen adierazi behar den atalean, kontuan hartu behar da baliokidetzat jotzen direla Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko (ROLECE) inskripzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion erregistroko inskripzioa.

B- Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa: dagozkion laukiak bete.

C- Beste erakunde batzuen gaitasuna baliatzeari buruzko informazioa: apartatu hau bakarrik bete behar da lizitatzaileak prozedura honetan eskatzen den kaudimena egiaztatzeko beste erakunde batzuen gaitasuna baliatzen badu. Kasu horretan, erakunde bakoitzari dagokion EKAB ere aurkeztu beharko da.

D- Operadore ekonomikoa bere gaitasuna egiaztatzeko baliatzen ez dituen azpikontratistei buruzko informazioa: apartatu hau bete beharko da, Klausula Espezifikoen 14. apartatuan hala aurreikusten bada, eta lizitatzaileak kontratuaren zati bat azpikontratatzeko asmoa badu. Erantzuna baiezkoa bada, eta informazio hori ezagutzen bada, aurreikusitako azpikontratistak edo azpikontratisten kategoriak adierazi beharko dira

III. zatia- Baztertzeko arrazoiak: EKAB zerbitzu elektronikoan, zati honetako A, B, C eta D apartatuetako eremuek EZ balioa dute lehenetsita. Eremu horien helburua da lizitatzaileak egiaztatzea ez dagoela sektore publikoarekin kontratatzeko debeku-egoeran, edo, halako egoeraren batean badago, dagokion salbuespena justifikatu ahal izatea.

III. zatiko D ataleko xedapenetarako, baztertzeko arrazoi nazional hutsak honako hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra):

